

uk

262. zenbakia / 2014ko abenduaren 2a



ARGIHIZKIAK

Argazkietan oinarritutako
**TESTU LABURREN
III. LEHIAKETA**



Erakusketa Berangon

Abenduaren 9tik 19ra
Berangoeta kultur etxean
(Simon Otxandategi etorbidea, 64)

Ordutegia
09:00-14:00 eta 16:00-21:00

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea

HELBIDEA: Martikoena 16, 2. solairua 48992 GETXO
e-mail: uk@dizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337

ZUZENDARIA: Irantzu Sagarrinaga

ERREDAKZIOA: Zuberioa Iturburu, Julien Nafarrate,
Iker Rincon, Irantzu Sagarrinaga

FOTOGRAFIA: Asier Menthaka

TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega

KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurola, Armando
Llamas, K. Olate, Amaia Arriaga, Aritz Bergara, Algortako Bertso
Eskola eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea

MARRAZKILARIA: Laurita Siles

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (944 911 337)

FILMAZIOA: Parima Digital S.L. / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF

LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

© Boluntzarreta



ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



Non zer

4. PLAZA. Uribe Kostako Koordinakunde feminista / Arrate Illaro
5. IRUDIA. Erietxea Leioan.
6. FACEGUK. Plentziako geltokia ibita, ordezeko zerbitzuaz zer iritzi?
7. LEHEN ETA ORAIN. Portu Zaharra.
8. URIBITAKORA. Galdier Bilbao Martinez "Txapi".
9. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
10. MUNDUKATUAK. Mikel Montes Rodriguez.
11. ERRETRATUA. Joseba Aranguren "Morotxo".
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopela 20. Berango 22. Gainontzeko herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Kabaret Chihuahua ikuskizuna, Sopelan.
28. ARGAZKIA. Rilos merkantzia-ontzia Ereagan hondatu zenekoa.
30. BERBETAN. Estela Barnes de Carlotto, Amamen presidentea.
34. FOTOGRAFIA. Ibai Egurola San Andres / Airetikan.com.
40. SAKONEAN. Gorlizko sanatorioak 100 urte.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Luzetu barik film laburren lehiaketa.
43. MUSIKA. Ahotsenea.
44. LIBURUAK. Bernardo Atxaga Sopelan.
45. KIROLAK. Eneko Nieto Irureta.
46. JENTILKOBA. Itsaslaminek olerkiak.
47. EUSKARAetaERAKUNDEAK. Euskararen sustapena eskualdean.

AMAITZEKO

49. PINTXOTAN. Ravioli faltua: txerri hankaz beteriko kalabazina.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Laurita Siles.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Sopeloztarak kaxarranka dantzan, 1985.
54. AITORMENAK. Roberto Tananta Awanari.

Azala: Ibai Egurola San Andres / Airetikan


www.ukaldizkaria.biz



30 Estela Barnes de Carlotto

Berbetan

Maiatzeko Plazako Amamak elkarte-ko presidentearen aho-bihotzetik Ar-
gentinako jazoera latzetan sartu gara



11 Joseba Aranguren "Morotxo"



10 Mikel Montes Rodriguez

IHI Irudien eta hizkien hizkuntzetan oinarrituta,
ArgiHizkiak lehiaketa antolatu duugu Uribe Kostan.
ArgiHizkiak testu laburren euskarazko literatura-lehiaketa da.

'Fotografia' edo 'argazki' berbek "argiarekin marraztea
edo idaztea" dute jatorrizko esangura. Horrenbestez, zuen begiradek
argien eta hizkien hizkuntzekin jolastea proposatzen dizuegu.

www.argihizkiak.com



DURANGOKO AZOKA 49

kulturaren plaza

2014ko abenduaren 5etik 8ra
www.durangokoazoka.com

[f](#) [t](#) @durangokoazoka



Leihatila
> Arrate Illaro Etxebarria

Dazokat!

Hilabete barru kiroldegian emango dugu askok izena, batzuek erretzeari utziko diote, eta baten batek uko egingo dio urte berrian asmo berriak izateari. Erraz egiten ditugu planak urtarrilaren 1ean.

Baina hilabete lehenagora-ko plana proposatu nahi dizuet. Abenduaren 5etik 8ra, Durangoko Azokan lagunekin zein familiarekin gozatzeko ehunka aukera izango ditugu.

Duela urte batzuk, Landako erakustazokan buelta bat eman, liburu eta disko pare bat erosi, eta tabernara edo etxera joaten ginen zuzenean. Baina asko aldatu da azoka. Idazleekin solasean aritu gaitezke Ahotsenean, teknologia berrienak ezagutu ditzakegu Kabi@n, filmak ikusi Irudienean, kontzertuak Plate-ruenan, antzerkiak Szenatokian, gogoetak Areto Nagusian..., Etxeko gazteenek ere zer ikasia izango dute Saguganbaran, eta Azoka TB izango da guztiaren eta gehiagoren lekuko. Aukeratu zuen plana!

Bide batez, 2015erako asmo polita du Durangoko Azokak: 50 urte betetzea.

gu geu

Prest? Bi, bat...

Azken-aurreko UK da hau. Bagoaz. Nora? Zergatik? Laster. Betiko? Azken-azkena? Bai, hurrengoa. Zer ba? Diru-kontuak? Hurrengo UKn... Betor datorrena...

UK-ko lan-taldea

Iritzia

Uribe Kostako koordinakunde Feministaren izenean Uxune Iriondo Urbistazu, Lur Moragues Saitua, Aiala Hernaiz Rodriguez, Batirtze Lertxundi Perea, Ane Arnal Musategi eta Odei Arziniega Pikazarrik

“Gutarrak” ere bai, zoritxarrez. Eta gu konplize?

Indarkeria matxistaren mila aurpegi salatzeraz irtingo gara eskualdean datozen egunotan, azaroaren 25ean emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako nazioarteko egunaren harira. Hitzaldiak, ekitaldiak, manifestazioak, elkarretaratzeak, areto eta kaleetan.

Bereziki kezkatzen gaituen arazo bat azaldu nahi dizuegu lerroon bidez. Izan ere, erraza da gutarrak

ez diren, urrun edo ezezagun zaizkigunen portaerak salatzea eta horien kontra sutsu jardutea, hitzez zein ekintzaz, baina zer gertatzen da gure gertukoren bat, familiar, lagun-taldean, antolatuta gauden erakunde edo taldeetan, "gure" sindikatu, alderdi politikoan denean tratatu txarrak egiten dituen pertsona denean?

Orduan hasten dira komeriak. Ez dugu ikusi edo sinetsi nahi izaten. Beste alde batera begiratzten dugu sarri, justifikazioak, arrazoiak, aitzakiak eraikitzen laguntzen dugu, errazagoa baita hori erabaki ausartagoak hartzea baino.

Oraingoan ez (omen) da indarkeria matxista, ez diren, urrun edo ezezagun zaizkigunen portaerak salatzea eta horien kontra sutsu jardutea, hitzez zein ekintzaz, baina zer gertatzen da gure gertukoren bat, familiar, lagun-taldean, antolatuta gauden erakunde edo taldeetan, "gure" sindikatu, alderdi politikoan denean tratatu txarrak egiten dituen pertsona denean?

«**Beldurrari eta lotsari elkarrekin erantzun!**»

"gureak" pertsona inplikatuak, militanteak, eredugarriak dira eta pentsaezina zaigu horrelakoe-tan ibiltzea. Berehala ahorratzen zaizkigu "salaketa faltsuak" bezalako argudio lotsagarriak. Beti bezala, indarkeriaren existentzia zalantzan jartzen.

Ez da larria, adibidez, auzi politikopean dau-den herritarren defentsan aritzen diren abokatu ezkertiarrek indarkeria matxistaren dimentsio politikoari muzin egitea?

Izan ere, zailagoa da portaera horiei planto egitea, aurre egitea, salatzea eta biktimaren alde egiteak ekar liezazkigukeen ondorio guztiak onartzea (lagun zenituenak etsai bihurtuko zaizki-zu, beti berdin zabiltzala eta gauzak neurritik ateratzen dituzula aurpegiratuko dizute, mamuak ikusten dituzula). Baina guk, Uribe Kostako Koordinadora Feministan batu garen emakume-ok erabaki irmoa hartu dugu:

Ez dugu beste alde batera inola ere begiratu-ko, eta salatuko ditugu "gureak" egiten di-tuzten gaiztakeria matxistak. Ez diegu gure artean patxadan egoten utziko. Indarkeria pairatzen dutenen ondoan egongo gara beti.

Emakumeoi dei egiten dizuegu BELDU-RRARI ETA LOTSARI aurre egitera, laguntza eskatzera, eta ELKARREKIN erantzutera: auto-defentsa feminista praktikatuzera.

Eta pertsona guztioi eskatzen dizuegu ez begiratzeko beste alde batera, begiratu zuen barrenera eta hartu behingoz indarkeria matxista gure arte-tik erauzteko erabakia. Ez ahaztu otso-txanogorritxu-chiztariak barruan haziak eta heziak izan garela.

Emakumeak etxean, kalean, militantzian, lantokian, Euskal Herrian eta mundu osoan LIBRE izan eta ibil daitezten. Beldurrak eta lotsak ez dute emakumeen bidelagun izan behar.

EMAKUME ASKERIK GABE GANO-RAZKO HERRIRIK EZ!

Uribe Kostako Koordinakunde Feminista

[irudia]



LEIOA: 2014KO AZAROA

Erletxea... / Arkitektura bitxia dauka Leioako etxe honek, erlauntza tankera hartu dio gure argazkilariak. Aldapabarrena kalean dago eraikina eta Babes Ofizialeko Etxebizitza-blokea da. Barra-barra eraikitzen dabilza inguru horretan, hain zuzen ere, Ondiz auzora bidean. Leioako beste gune batzuetan ere ari dira etxe-multzoak altxatzen, berbarako, udallexetik gora, Sarriena auzorako bidean eta Artatza aldean. Batzuk handiak oso, beste batzuk txikiagoak, blokez betetzen dabilza Leioako bazterrak; datozen urteotan, beraz, leioaztar barri asko sortuko dira. *Erletxe* asko izango dira guztiak sartzeko. ○ / Argazkia: Asier Menteak

Auzokideen iritzia jakin gura duzu?
Herrietan pil-pilean dauden gaiak, galdera
umoretsuak, eztabaida sor ditzaketenak...
Idatzi galdera **gure facebook**-en
eta zeure partez luzatuko dugu!

Plentziako geltokia itxita duten bitartean jarriko den zerbitzuari egoki deritzozu?



 Plentzia

Jon Larrauri

> igeltseroa

Metroa kentzea nahaspila izango da, baina ez dago beste aukerarik. Beharrezkoa ikusten dut Urdulizko trenbidea lurperatzea. Bizkaian gelditzen den pasonibel bakarra da. Horren ordainetan jarriko duten zerbitzuari ondo deritzot, baina geltokiaren ondoan busak gelditzea ez da egokia, ez dago lekunik.




 Sopela

Mikel Ceballos

> ikaslea

Nire ustez beharrezkoa da Urdulizko pasonibela lurperatzea, bertan egongo baita ospitalea. Obra horien ondorioz, metro geltokia itxiko dute eta autobusak jarriko dituzte. Ni institutuko ikaslea naiz, eta zerbitzu hori nahiko eskasa izango dela uste dut.



 Sopela

Gorka Santolaria

> ikaslea

Ikasleontzat txakurkeria izango da. Leku batetik bestera mugitzeko denbora gehiago emango dugu, autobusa metroa baino motelagoa delako. Hortaz, lehenago joan beharko dugu autobusa hartzera. Hala ere, Urdulizko obrak beharrezkoak dira, etorkizunean hobe izango da-eta.



 Plentzia

Amaia Sarria

> ikaslea

Gogaikarria izango da, baina momenturen batean edo bestean egin behar zituzten Urdulizko obrak. Autobus-zerbitzua jarriko dute, eta azkenean, nahiz eta metroa bezain eroso ez izan, funtzio bera izango dugu alde batetik bestera mugitzeko.



 Armintza

Ibone Alonso

> irakaslea

Uste dut sinadurak biltzen ari direla Plentziatik Larrabasterraraino zuzenean joango den autobus bat lortzeko. Jari nahi duten autobus-zerbitzua geltokiz geltoki joango omen da, eta arinago mugitzeko, zuzeneko bat nahi dutela uste dut. Badirudi autobusak denbora gehiago behar duela ibilbide hori egiteko.



 Plentzia

Pilar Vega


> gerokultorea

Autobusen joan-etorri asko egongo da, nahaspila handia. Gaur egun autobus gehiegi daude metro geltoki ondoan, beraz, metroa ixten dutenean okerragoa izango da. Tokia oso txikia da horiek guztiak hartzeko. Gainera, hemen dik Urdulizerako errepidea ez da oso egokia autobusez joateko.



[lehen]

ASER MENTXAKA



[orain]

GETXOKO UDAL LEBURUTEGA

Iraganez doa denbora* beti / PORTU ZAHARRA

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > udazkeneko haizeak



Barrika, 2014ko azaroa

Testua: **Galder Bilbao Martinez “Txapi”** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

* Doinua: Lide Txikia Hodei Handia

Horrelakoak izaten dira Barrika aldeko paisaiak; haizea fuerte ibiltzen da ta zuhaitzentzat masajeak. Itsasoan ere badirudi lan egin duela guraizeak, mahai ta ahulkia eskerrak dauden tinko, bestela trantzeak; poltsikoetan harriak sartu ez eroateko haizeak!!!

Hilabete hontan haizea dator hegotik ta ez da makala, eguzkiarekin bat ta horregaitik beltza daukagu azala. Nahiz ta azaro-abenduan egon berotan dugu magala. Zeozer txarto egiten gabilz ta aspaldi dela hala; gero ta gehio honek dirudi Euskal Herri Tropikala!!!

Gure gizarte honek baditu zirrikitu ta meritu; Pantoja berak bibotearekin kartzelara eroan gaitu, bankero eta politikari zorrak ordaindu behar ditu. Alba-ko Etxeak Nafarroa odolztu zuela behar da oroitu; pozik egongo ginen haizeak denak eroango balitu!!!

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz

Aktualitatearen alde ezberdinak konbinatuko dizkizugu astero

ARGIA. Kalitatezko prentsa independentea

Jaso ezazu Euskal Herriko astekaria hilabetez **doan!**

sustapena@argia.com · 943 37 15 45

hitzordua > VI. Topaketa Feminista



Abenduaren 13an, Ondarroan

Emakume Abertzaleon VI. Topaketa Feminista abenduaren 13an egingo da Ondarroan. Azaldu dutenez, *“Euskal Herriko Bilgune Feminista sortu zenetik 12 urte igaro dira. Urte hauetan zehar, orduan definitu genuen plan estrategikoa ardatz izanik, egin dugu bidea. Baina Euskal Herria aldatu da, feminismoak aldatu dira, patriarkatuak forma berriak hartu ditu”*. Jostorratzak dantzan ditugu! Euskal He-

rriaren burujabetza feministarantz! du goiburu topaketak, eta helburu, besteak beste, hau: Euskal Herrian burujabetza feminista bateranzko ibilbidearen edota trantsizioaren oinarriak zehazteko eztabaida ematea. “Jostunek” alde z aurretik izena eman beharko dute (15 euro). ○

Info+: (bloga) 2014topaketafeministak.net
www.bilgunefeminista.org
ehbfeminista@gmail.com

diru-bilketa > Xaloa Telebista Iruñerrian

Euskarazko Xaloa Telebista Baztan-Bertizarana-Malerrekan hasi zen emititzen 1997an. *“Sorreratik helburu nagusi batek bultzatu du gure jarduna: euskarazko telebista zerbitzu hurbila emateko helburua eta gogoa”* diote, *“Nafarroako Gobernuak 2013an LTD kanalen esleipena egin zuenean, gure proiektua garatu eta euskararen normalizazioan laguntzeko jauzi kualitativoa egiteko aukera ikusi genuen. Lehiaketa-*

ra aurkeztu eta eskuratu egin genuen Iruñerrian emititzeko lizentzia; pozgarria izan da, baina baita kezka ere: telebista medio garestia da, eta martxan jartzeko inbertsio handia eskatzen du”. Azpiegitura teknikoak martxan jartzeko 50.000 euroko inbertsioa egin behar dute eta diru-bilketa antolatu dute hori lortzeko KARENA plataforman; hilabete amaiera arte egin daiteke ekarpena (eskuman duzuen helbidean). ○



karena.eu/proiektua/xaloa-telebista-irunerrian



Lanak bidaltzeko epea zabalik apiril arte

bideo-lehiaketa > on zientzia

Elhuyarrek eta Donostia International Physics Centerrek (DIPC) On Zientzia bideo-lehiaketa antolatu dute bosgarrenez. Teknopolis telebista-saioaren barruan egingo da ekimena, eta parte-hartzaileek zientzia eta teknologiaren inguruko bideoak bidali beharko dituzte, hori izango dute gaia. Aurten, Gazte saria kategoria berria sortu da, 18 urtetik beherakoentzat. Bideorik onenak Teknopolis

saioan ikusiko dira, eta gainera, sari nagusi hauek banatuko dituzte: Dibulgaziozko bideo onenarentzat 3.000 euro, Euskarazko bideo onenarentzat saria 2.000 euro, eta Gazte saria 1.000 €. Lanak aurkezteko denbora nahikotxo dago oraindino, izan ere, 2015eko apirilaren 29ra arte bidal daitezke bideoak; halare, hasi pentsatzen... ○

Info+: www.onzientzia.tv

Roke Deuna 25
20808 *Getaria*
Gipuzkoa


...harria *...lehengo garaiak...* *...itsasoa*

www.siazgetaria.com / info@saiazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

Mikel Montes Rodriguez > Berlin (Alemania)

“Harrigarria: Euskal Herria baino merkeagoa da Berlin”

Lanera joan zen Berlinera Mikel Montes Rodriguez algortarra. Oporretan ezagutu zuen hiria eta izuragarria iruditu zitzaion. Sukaldari da eta *Dos palillos* jatetxean lan egiten du: lau hilabeterako kontratua sinatu zuen, baina ez du baztertzan denbora gehiago lotzea. Jatetxea asiarra da, Bartzelonan badaukate beste lokal bat eta Albert Raurich sukaldari ospetsuak zuzentzen ditu. Berak El Bulli jatetxean lan egin zuen 11 urtez (horietatik zazpi sukalde-buru). Raurichen esperientziak baliatuta benetako janari asiarra emoten ahalegintzen ei dira.



Euskal Herritik urteteko gogoa zeukan Montesek eta Berlinera joateko aukera sortu zitzaionean, ez zuen birritan pentsatu. Hiriari buruz ondokoa kontatu digu:

Zer jan eta edan

Berlinen janari azkarra da nagusi baina ondo bilatuz kalitatezkoa aurki genezake. Janari internazionala da nagusi, eta edonon aurkituko dugu non jan. Alemaniako plater tipikoak dira: patata-entsalada, *currywurst* delako platera (saltxitxak ketchupagaz eta kurriagaz), eta ukondo errea. Dena okela, harrigarria da arrandegirik ia ez dagoela eta oso zaila dela arraina eskuratzea; gure jatetxean, adibidez, hegazkinez ekartzen digute.

Zer bisitatu

Berlinen gero eta kanpotar gehiago dago, izugarri handitzen ari da biztanleriari dagokionez, eta kultura arloan ere

hiri handienetakoa da, seguruenez. Hona etorritz gero ezinbestekoa da bisitatzea Brandenburgo atea, museoen irla eta Alexanderplatz. Berlingo harresiaren zati bat gelditzen da eta bertan badaude graffiti ikusgarriak. Gomendatuko nuke, Kreuzberg aldean buelta bat egitea ere. Bestalde, esatea edozer gauza egin ahal izateko (kontu korrontea ireki, etxebizitza alokatu, e.a.) paper ugari eskuratu behar dela, eta alemanieraz ez badakizu zailtasun ugari izan ditzakezula.

Harritzeko modukoa

Niretzat harrigarria zera da: Berlin hiri oso merkea dela, Euskal herria baino merkeagoa. Harrigarria da Berlineko garrario publikoetan ez dagoela harresirik. Bestalde, botilak birziklatzeagatik dirua ematen dute, beraz diru beharra dutenek botilak pilatzen dituzte sos batzuk lortzeko; birziklatzeko teknika bikaina. ○



Nor da

Nongoa
Algortakoa

Adina
26

Zertan dabil
Lanean

Ikasketak
Sukaldaritza

Noiz arte Alemanian
Aldaketarik ezean, otsailera arte behintzat han jarraitzeko asmoa dauka eta horren ostean itzuliko da Algortara, herrira

Non dago

Lurraldea
Alemaniako Errepublika Federala (357.021 kilometro koadro)

Hiria
Berlin (Alemaniako hiriburua, herrialdearen ipar-ekialdean)

Biztanleria
3,4 milioi

Hizkuntzak
Alemaniera; sorabiera onartua da Kottbus eta Bautzen hiri-barrutietan; danierak, frasierak (12.000) eta romani hizkuntzak ere badute ezagutza ofiziala, eta babestuta daude

Dirua
Euroa



“Gure filosofia beti izan da ez esatea ezetz inori eta kirol-proba guztietan laguntzea”

Joseba Aranguren “Morotxo” > kirolaren erreferente

Ez du aurkezpen beharrik. Bere izena entzun eta, gehienok ez genuke jakingo nor den, baina ezizenagaz ez du azalpenik behar: Joseba Aranguren Onaindia, “*Morotxo*” bezala ezagunagoa, kirolaren erreferentea da Getxon eta eskualde osoan. Algortar peto-petoa den arren, Venezuelan jaiotakoa da: ““*Handik 11 urtegez etorri nintzen. Bikiei han “morocho” esaten zaie, eta nik berba hori hemen erabiltzen nuen. Ez izen hori jarri zidaten*”. Kirolzale amorratu sutsua, Hirea Kirolak denda zabaldu zuen 26 urtegez: “*Ilusio handiko garaia zen*”. Gerora, 20 urte bete barri dituen Kantxa Kirol Moda zabaldu zuen, Torrene kalean bertan. Baina aitortzen duenez, gaurkoa ez da sasoirik onena eurentzat: “*Inoiz baino gehiago sufritzen ari gara. Merkatal-gune handiek kalte itzela egin digute eta apartaleku-faltak ere ez digu mesederik egiten*”. Hala ere, Kantxa ez da ohiko denda: “*Jende asko etortzen da hona kirol-probetaz informatzera bakarrik*”. Izan ere, Morotxok beti izan du lotura oso estua herriagaz: “*Gure filosofia beti izan da ez esatea ezetz inori eta proba guztietan laguntzea, baina batzuetan ezin izan dugu nahi beste lagundu*”. Astialdian, noski, ez du kirola alde batera uzten: “*Astebururo bospasei partida ikusten ditut! Hala jarraituko dut, etxetik kanporatu arte, kar-kar!*”. ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Julen Nafarrate**

Idatzi diozu Olentzerori?

Gabonak direla-eta **ekitaldiak antolatu** dituzte **han-hemen: antzerkiak**, kultur etxean **tailerrak** eta **Getxolandia** umeentzako parkea; **Olentzerok** bere **egitaraua** dakar **auzoz auzo**

Piztu dituzte argiak kaleetan, opari-iragarkiz gainezka dago telebista... sumatzen da Gabonak gertu daudela. Horregatik, egun horietarako antolatu direnen barri emotera gatoz, ez da-eta gauza gitxi: Romoko kultur etxean sorkuntza-programa egingo da hil akabuan, Andres Isasi musika-eskolan ikuskizun bi eta Areetako Geltokia plazan Getxolandia umeentzako parkea. Eta zelan ez, Olentzerok ez du kale egingo hilaren 24an.

Romoko kultur etxeak programa berezia prestatu du abenduaren 22, 23, 26, 29 eta 30erako, eta urtarrilaren 2rako. Goizez, *Sortu zure ametsak Gabonetan* delako ekimena zuzenduko dute Myriam Rodetek eta Guabek, 3 eta 12 urte bitarteko umeentzat (11:00etatik 13:00etara). Arrastiz, barriz, *Tu ingenio y la creatividad añadiendo las nuevas tecnologías* programa gidatuko du Peopleing-ek (5-12 urtekoentzat, 17:00etatik 19:00etara). Biak ala biak doa-koak izango dira.

Ekimen bi horietarako adina nahiko mugatuta dago, ikusi denez. Halere, ume nagusiagoek edo nerabeek (baita animatzen diren nagusiek ere) izango dute non gozatu eta dibertitu, hain zuzen ere: Getxolandian. Gabonetako jolas-parkea Areetako Geltokia plazan kokatuko dute, urtero legez, eta zabalik egongo da abenduaren 20tik urtarrilaren 5era (abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean itxita egongo



Ume batzuk Getxolandia-ko tiobiboetan

da). Sarrerak 3,5 euroan salduko dituzte eta bakoitzagaz 5 bidaia egin daitezke tiobiboetan. Ordutegia ondokoa da: 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara, salbu eta abenduaren 24an eta 31n, eta urtarrilaren 5ean; egun horietan ordu-

“Getxolandia Gabonetako haur-parkea abenduaren 20tik urtarrilaren 5era zabalduko dute”

bete lehenago itxiko dute Getxolandia. Azkenik, Andres Isasi musika-eskolan ikuskizun bi eskainiko dituzte opor-egunetan. Abenduaren 28an, *Olentzero eta zaku magikoa* antzeztuko du Kalika taldeak; eta 29an, Sun Magoaren saioa izango da (biak 18:00etan eta 5 euroren truke). ○

Info+: www.getxo.net

Olentzero

- **Neguri-Gobela:**
 - Kalejira (Gernika parketik; hilak 20, 18:00)
- **Algorta:**
 - Umeen bertso-saioa (San Nikolas; hilak 23, 19:00)
 - Jolasak (San Nikolas; hilak 24, 12:00)
 - Kalejira (Benantziotik; hilak 24, 17:00)
- **Areeta:**
 - Antzerkia (Eskoletako plaza; hilak 23, 18:30)
 - Erromeria, bertsoak, dantza erakustaldia (hilak 24, 11:00)
 - Kalejira (hilak 24; 18:30)
- **Andra Mari (Malakate):**
 - Txitxiburduntzia (hilak 23; 18:00)
 - Kalejira (hilak 24; 17:00)
- **Romo:**
 - Gutunak jasotzea (Elizako arkupeak; hilak 23, 18:00)
 - Kalejira (hilak 24; 17:00)

Lonjetarako protokolo bat amaitzen dabil Udala, zelan jokatu zehazteko



Koldo Iturbe Gazteria zinegotzia, ikerketaren ondorioak aurkezten

Getxoko Udalak gazte lonjetan esku-hartzeko programa martxan jarri du, “*fenomeno horrek udalerrian sortzen dituen hainbat eskaerari eta beharrei erantzuna eman ahal izateko*”. Programak, lan egiteko barne-protokoloa, lonjen erabiltzaileekin heziketa alorreko esku-hartze ekintzak eta herritarrek artatzeko zerbitzua jartzea ezartzen ditu.

Udalak jakinarazi duenez, une honetan, programa barne-mailako lan-fase batean dago: herritar, lonja-erabiltzaile, gazteei lonja bat alokatu gura dieten eta abarregandik sor litezkeen eskaerei erantzun eraginkorra eman ahal izateko adostu gura dute jokabide-protokoloa.

Fase hori amaitu ostean, esku-hartze zerbitzua ipiniko dute herritarren eskura, lonjetan bertan. Horiak irekitzeko eta era-

biltzeko gomendioak barne hartuko ditu zerbitzuak: orientazioa, aholkularitza eta laguntza eskainiko ditu eta, beharrezkoa balitz, gatazketan bitartekaritza-lana, hezitzaile baten bitartez. Zerbitzua datorren urte hasieran abiatzea aurreikusi dute.

Gaur egun, Getxoko 1.600 bat gaztek erabiltzen ditu aipatu lokalak, “*Getxoko lonjen egoerari buruzko diagnostikoan*” jasotzen denez. Diagnostiko horren arabera, Algorta eta Romo auzoetan daude lonja gehienak, eta erabiltzailearen profila ondokoa da: 20 eta 30 urte bitarteko gizonezkoa, bertokoa eta euskalduna. Gainera, lonjetako erabiltzaile gehienek harremanak ei dauzkate bizilagunakaz eta, haien iritziz, harremanak “*onak edo oso onak dira*” euren artean. ○

Info+: www.getxo.net



BAPIRUKÉ GABONETAKO KOLONIAK, IZEN-EMOTEA

Abenduaren 22tik urtarrilaren 5era izango dira Bapiruke Gabonetako koloniak, eta izena emon daiteke abenduaren 9tik 11ra (egunero 10:00etatik 14:00etara, eta abenduaren 10ean 16:30etik 18:00etara ere). Horretarako, ingresoaren ziurtagiria eta Osakidetzaren txartelaren kopia eroan behar dira Bizarra Lepoan elkartearen bulegora (Martikoena 16, 2. solairua). Zalantzetarako: info@bizarralepoan.org.

Info+: www.bizarralepoan.org

IKASTETXEETAN HAINBAT PROGRAMA ABIAN

Ertzaintza eta Udaltzaingoa prebentzio-zerbitzua egiten ari dira herriko DBH edota LHko bederatzi ikastetxeetako inguruetan, “*droga salmenta txikiak, eta drogekin trafikatzeko eta larderiako lapurreta txikiak (dirua eta sakelako telefonoak) arma zuriekin egiten dituzten pertsonen presentzia saihesteko*” helburuagaz. Bestalde, eta ikastetxeetan ere, “*sexu eta afektibitate heziketa programa*” DBHko bigarren mailako ikasleei ere eskainiko die Udalak, ikasturtean zehar.

Info+: www.getxo.net

USTEKABE EGOERETAN BABESBAKOEI OSTATU

Hainbat arrazoiengatik, eta ustekabeen gertatutako egoeren aurrean, babesgabetasun egoeran dauden pertsonen emon beharreko arreta jaso du Udalak agiri batean. Horrenbestez, aurreikusitako jarduerak aurrera eroango dituzte Gizarte Zerbitzuek eta Udaltzaingok: “*Biek batera egin beharreko zeregina da, berehalako erantzuna emoteko, batez ere ostatu*”. Hain zuzen, ostatu emotearen komenigarritasuna hurrengo irizpideek zehaztuko dute: senideen edo lagunaren laguntzarik ez izatea, gastu horri aurre egiteko dirurik ez izatea, eta beste baliabide edo erakundearen estaldurarik ez izatea. Kasu horretan, gaua ostatu batean pasatzea eskainiko litzaioke babesbako pertsona horri.

Info+: www.getxo.net

GARAIZAR BARRIKUNTZAK

ERAIKUNTZA ZERBITZU INTEGRALAK
Tf-944305243/ 607952977-6 regaraizar@gmail.com
www.garaizar.biz
Illeta kalea 1 ALGORTA

Patxi Lasa Etxezarreta > Itxas-Argia kantari kanta

“Kantu-taldea sortu dugu kantuzaleak batu, ingurukoak alaitu eta gure kultura sustatzeko”



Taldeko argazkia, entsegetako batean

Kantu-taldea sortu dute Itxas-Argia kultur elkartearen. Talde irekia da, edonork parte har dezake, kantatzen jakin edo ez. Hilean bitan elkartuko dira elkartearen egoitzan, entsegua egiteko, 19:00etan; eta hilean behin, Getxon eta Algortan erakutsiko dute entseguen emaitza, tabernaz taberna. Lau lagunek bultzatu dute ekimena, horien artean dago Patxi Lasa Etxezarreta. Elkarrizketa egin genuen lehen entsegutik egun batzuetara eta badirudi indartsu hasi direla, izan ere, 27 lagun elkartu ziren. Zuzendari lanak egiten ditu Josu Landeta Egurrolak.

—Lau lagunek bultzatu duzue taldea?
—Taldea bat gaude horren atzean. Lau hasi ginen, Goio, Manu, Juan eta laurok; eta gero deitu genion Josu Landetari, zuzendari tekniko lana egiten du. Joan den barikuan egin genuen lehen entsegua eta 27 lagun elkartu ginen, hasieratik ekimen irekia da-eta.
—Danak getxoztarrak?
—Ingurukoak, bai. Hori da-eta asmoa, Andra Marin eta inguruan kanturako zaletasuna apur bat sustatzea.
—Eta zergatik sortu duzue abesbatza?

—Kontuz, argi utzi gura dugu ez garela abesbatza, baizik eta kanta-taldea. Hau guztiz irekia da. Jende askok esaten digu ez dakiela abesten, eta ez da beharrezkoa. Hemen bakarrik behar dituzu kantatzeko zaletasuna eta jai-giroan ondo pasatzeko gogo, baita euskal kulturaren inguruan lanketatxoa egitea ere. Helburu nagusietakoa da zabala izatea, etor dadila gura duena. Zertarako? Kantuzaleak batzeko, kantuen bitartez ingurukoak alaitzeko eta euskal kultura sustatzeko. Izan ere, gauza ez da bakarrik kantatzea: entseatzen ditu-

gun kantuen inguruan lantzen dugu beren sorrera, egiletza, jatorria edota letren esanahia. Jai-giroan, ondo pasatu eta euskal kulturaren inguruan aurrera-pausotxo bat emotea, inolako handitasunik barik, baina bide horretan goaz.

«Guztiz irekia da, bakarrik behar dira zaletasuna eta ondo pasatzeko gogo»

—Zelan sortu zitzaizuen talderako ideia?
—Itxas-Argia elkartearen hainbat ekintza egiten dira, eta iaz, batzuk komentatzen ibili ginen kantu-talde bat egiteaz eta pentsatu genuen hurrengo ikasturtean hastea bultzatzen; eta horrela izan da. Plentziako Kantagune taldeagaz harremanetan ipini ginen, ibilbide luzea daukate-eta. Apur bat kopiatzen ari gara, behintzat gauza asko ikasten ari gara, asko laguntzen digute.
—Eurak alde zaharrean aritzen dira kantari, antzeko asmoa daukazue?
—Bai, Algortan eta Andra Marin kantu-poteoa izango dugu hilean behin, tabernaz taberna. Entsegu bi dauzkagu hileroko, eta bigarrenaren ostean aterako gara kalera abestera.
—Euskal kantak dira errepertoriokoak?
—Batez ere, baina ez gaude itxita beste nazioetako kantak egiteko. Gainera, gure kantutegia egiteko asmoa daukagu. Bertan sartu gura ditugu Uribe Kostako kantuen ere, horren ezagunak ez direnak, jendeari aditzera emoteko; eta aipatu legez, kanten historia ere ezagutarazteko. Zorionez, herri honetan kantarako zaletasun handia dago.
—Musikariak ere badauzkazue?
—Josu Landetak soinu txikia daroa eta asmoa da apurka-apurka joatea: hurbiltzen direnen artean baten batek tresnaren bat jotzen badu, hurrengoan ekar beza. ○

Bosteko, azkena Getxon Erakusketa ibiltariak Torrene aretoan amaituko du bidea, hilaren 10etik 28ra



Bizkaiko beste lau udalerrri bisitatu ditu erakusketak

Alberto Albor, Iranzu Antona eta Kepa Garraza artisten lanak erakutsi ditu aurtengo Bosteko erakusketa ibiltariak. Bizkaiko Foru Aldundiak antolatzen du eta bost udalerritan egin ohi da. Edizio hau Getxon amaituko da, Leioa, Basauri, Zornotza eta Arrigorriaga bisitatu ostean. Hiru artisten lanak Algortako Torrene aretoan egongo dira ikusgai, abenduaren 10etik 28ra bitartean.
Daborduko Bosteko egitasmoaren hamazazpi edizio antolatu dira eta, bere baitan, berrogeita hamar artista baino gehiagoren obrak aurkeztu dira. Kasu honetan, Alberto Albor eta Kepa Garraza pintoreak

dira, biak figuratiboak, baina estiloak apur bat desberdinak. Iranzu Antona, barritz, arlo transbertsalago batean mugitzen da: “Argazkilaritza, eskultura eta bideoa uztartuz paisaiari behatzeko begirada interesgarria egiten du”. Hiruren lanak batuz sortu dute *Sormena, berregitea eta kopia* izeneko erakusketa kolektiboa.
Antolatzaileek diotenez, asmoa da ikusle guztientzako erakusketa ulertteraza eta didaktikoa izatea eta, helburu nagusia, erakusketa aurkeztzen den Bizkaiko udalerritan euskal artista plastiko aintzatetsien obra ezagutzera emotea eta hedatzea. ○

Info+: www.getxo.net

JCB INSTITUTUAN ERE EUSKARAGAZ BAT

Euskararen eguna dela-eta hainbat ekimen egiten ari dira Julio Caro Baroja institutuan. Idazle bigaz solasaldia izan da: batetik, Unai Elorriagak hitz egin du, *SPrako tranbia* eleberrari buruz; bestetik, Aitor Aranagak berba egin zuen *Hildakoen eremuan* liburuari buruz. Abenduaren 3rako, Euskararen Egunerako, erromeria eta herrikirolak antolatu dituzte. Hilaren 4rako, Jon Arretxe idazleak berbaldia emongo du *Hutsaren itzalak* liburuari buruz eta segidan Euskaraokea izango da. Amaitzeko, abenduaren 5ean, barikuagaz, Durangoko Azokara joango dira ikasleak.

Info+: www.iesjcbarobjahhi.hezkuntza.net

AHOBIEN GALA ETA ARGIA EREITEN SARIA

ALBE Algortako Bertso Eskolak Ahobi sariak banatuko ditu, beste behin ere, Ahobi Galaren baitan. Abenduaren 13an egingo da ekitaldia, 18:00etatik aurrera, Algortako kultur etxean. Besteak beste, bertso-eskolako gazteen antzezpen-ikuskitzuna eta ALBErtso-saioa egingo dira ekitaldiaren barruan. Gainera, askaria ere prestatuko du ALBEk. Bestalde, urtero legez, Getxoko Udalak Argia Ereiten euskara saria emongo du abenduaren 2an. Fadura kiroldegiko areto nagusian izango da ekitaldia, 20:00etan.

Info+: www.getxo.net

GAIZKA BASALDUAREN HITZALDIA HILAREN 18AN

Urte honetako azken hitzaldia egingo du Bolivartiar Ikaskuntza Elkartek, noiz eta abenduaren 18an. 2014a amaitzeko, Gaizka Basaldua gonbidatu du berbaldia emoteko eta ondoko gaiari buruz jardungo da: *La sociedad en marcha, Navarra como clave de movilización*. Ohi legez, Algortako kultur etxean izango da solasaldia, Villamonten. Arrastiko 19:00etan hasiko da. Elkartegaz harremanetan ipini gura baduzu idatzi mezua: bolibarikastaroa@gmail.com.

Info+: www.bolibar.org

lagusana

liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
gusanalibreria@gmail.com

Lucia Gorbeña Etxebarria > GEUZ zentroko koordinatzailea

“Garrantzitsua da normalizazio-prozesuari laguntzea herri mailan, elkarrizketa bultzatzea”

Nik Mashup proiektua garatzen dabil Geuz Gatazka Eraldatzeko Unibertsitate Zentroa Leioan. Euskal identitateari eta bere ezaugarri nagusiei buruzko hausnarketa egitea helburu, gazteakaz lan egin dute. Lucia Gorbeña Etxebarria dugu GEUZeko koordinatzaile.

—Zertan datza *Nik Mashup*?

—Ikus-entzunezko proiektua da, parte-hartzailea. Ardatza dira gazteak eta teknologiaren belaunaldi honen mezuak zabaltzeko bideak. Hori dena herri mailan eta harremanetan ondokoakaz: bakea, bizikidetza, herritartasuna, e.a. Zehazki, euskal nortasunak gatazka politikoagaz daukan harremanean kokatuta dago, Euskadin azken 30-40 urteotan bizi izan dugun indarkeria egoeragaz. Horregaz zelako harremana daukan, baita hortik aurrera ere, bizikidetza berreraikitzeagaz. Gazteek parte hartu dute sorkuntza-laboregarian, baina gero kalera urten dira herritarrei galderak egitera, bideoz grabatuz. Galderak aipatu ildoan kokatu dira: nortasuna, gatazka eta bizikidetza.

—Zergatik gai hori?

—Helburua da gaiari buruz hitz egiteko eta iritzia emoteko aukera kaleratzea. Ga-



Info+: www.geuz.es

rrantzitsua da normalizazio-prozesuari laguntzea herri mailan, elkarrizketa eta hausnarketa bultzatzea, gure nortasunari buruzko ideiak berreraikitzea ahalbidetuko duten mezuak zabaltzea, hainbeste urteko beldurrez, konfiantza ezaz edota mehatxuz mindutako ehun-soziala berreraikitzen laguntzeko.

—Denek ez dute uste gatazka amaitu denik, zelan bideratuko duzue?

—Gatazka amaitu edo ez, une aproposa

da elkarrizketarako; indarkeria estrukturala ez, baina badirudi nahitasun politikoa-gaz egindako indarkeria zuzena hori bai, amaitu dela. Horrek ahalbidetzen ditu bestelako ekimenak, duela urte batzuk agian ezinezkoak zirenak.

—Emaizta bideo bat izango da?

—Lekukotza-mosaikoa osatuko dugu webgunean, erantzuteko eta iruzkinak egiteko aukera emonez. Gainera, prozesu osoa jasoko dugu bideo batean. ○

Txapeldun ikuskizuna taularatuko da Kultur Leioan hilaren 12an, Organik eta Kepa Junkeraren sormena da



Ikuskizuna Durangoko Azokan estreinatuko da, abenduaren 8an

Hamar urteko ibilbidearen ostean, Organik taldea *Txapeldun* dantza-saioa aurkeztera dator: mugimendua ardatz, haren gainean eraikiko da istorioa, propio sortutako musikagaz, eta testu bitxi eta umoretsuakaz.

Oraingoan, Organik getxoxtar taldeak bidelagun izan ditu: antzerkigintzan, Valentziako El Pont Flotant taldea eta Kepa Junkera musikaria, “*euskal sustraiei azterketan sakontzen duen lan honi freskotasun dosi gehigarria emon diote*”. Kontzeptua definitu dute Natalia Mongek (Organik) eta Eneko Balerdik, zuzendari artistikoa da Monge eta antzezlea Eneko Balerdi, dramaturgiar arduratu da El Pont Flotant taldea, eta musika sortu

du Kepa Junkerak. Emaizta da 50 minutuko ikuskizuna.

Eneko Balerdi interpreteak eta Kepa Junkera konpositoreak sortutako musikak, hain zuzen ere, txapeldun baten hainbat bizipen erakusten ditu. Garaipen unez hitz egiten du lanak, baina baita bakardadeaz, presioaz, beldurraz eta hauskortasunaz ere.

Abenduaren 12an ikusi ahalko dugu Kultur Leioan, 20:30ean. Sarrerren prezioa 12 eurokoa da. Gainera, esan daiteke ia estreinaldia izango dela, ikuskizuna lehenengoz taularatuko dute-eta hilaren 8an, Durangoko Azokako Szenatokia gunean (San Agustin kultur gunean). ○

Info+: www.organikdantza.com

METALEZKO ANIMALIAK, HORI IKUSGARRIA!

Jose Azul eskultorearen lanak ikusi ahalko dira Kultur Leioako erakustaretoan abenduaren 11tik urtarrilaren 25era bitartean. Eskultura bereziak dira, izan ere, metalezko animaliak egin ditu Azulek. Batzuk oso errealak, abstraktoagoak besteak, eta askotan beste material batzuek nahastu du metala. Eskultura gustuko baduzu, horiekaz gozatzeko aukera paregabea daukazu asteotan.

Info+: www.joseazul.com

GABONETAN UMEAKAZ ANTZERKIRA, ZATOZI!

Oraindino apur bat falta bada ere, Gabon kutsua nabarmentzen hasi da eta Kultur Leioan umeentzako eskaintza prest daukate: *Gabonetan antzerkira* programa. Ondoko lanak antzeztuko dituzte: abenduaren 26an, *Hiru txerri txoak eta otsoa* (Glu Glu); hilaren 27an, *Codigo postal 00* (Engruna Teatre); abenduaren 28an, *Gretel & Hansel* (Zum Zum Teatre); eta 29an, *Mobil* (La Güasa Circo Teatro). Guztiak 18:00etan hasiko dira, eta sarrerren prezioa 5 eurokoa da. Bestalde, egun batzuk lehenago, Gabonetako kontzertuak eskainiko dituzte Leioako Gazte Orkestrak (20an), eta Orpheo Ganbera Abesbatzak eta Leioako Musika Bandak (21ean); biak 20:00etan.

Info+: www.kulturleioa.com

MERKATARIEK ETXETAN BANATUKO DUTE

Leioako 29 saltoki erosketak etxetan banatzeko doako zerbitzua eskaintzen hasi zaizkie bezeroei; Merkatarien Elkarteak eta Behargintzak abiatu dute ekimena. Saltokiek *Leioa bidean* ipintzen duen ikurra daukate, identifikatu ahal izateko. Ekimenaren ardatza da “*merkataritza hurbila, enplegua eta jasangarritasuna sustatzea*”. Gainera, asmoa da “*bizikaltasuna hobetzea eta dendak indartzea*”; 500 saltokitik gora dauzka Leioak.

Info+: www.leioa.net

EGUNKARIAK

prentsa eta aldizkariak

gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34



Luberri Basolanak, SL
Axpe ibaiertza 28A
beheko solairua B12 lokala
Erandio (Bizkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38
Tf. :94 467 17 13
Faxa: 94 467 42 41
luberri@euskalnet.net
www.luberri.biz

- Soropila ezartzea

Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarritze lanak eta ereite lanak.

- Seropila zaintzea eta mantentzea

Moztea, ureztatzea, ongarritzea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelikatzea, soropil gaitzak eta belar gaiztoak tratatzea.

- Inausketak

Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaixka apaingarriak inautzea, erabateko inausketak.

- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

Aitor Coteron Oleaga > aktorea eta ekoizlea

“Hasieratik jakin dut egia den historia baten parte naizela eta gustura ibili naiz”

Lasa eta Zabala filman parte hartu du Aitor Coteron Oleaga goiherritarak. Telebistan hasi zen, **Goenkale** telesailean eta hauxe izan du bere bigarren filma, izan ere, duela hiru urte egin zuen protagonistarena **Bi anai** pelikulan.

—Zelan sortu zen filmerako aukera?
—Antzeppen munduan telebistan hasi nintzen, aktore moduan, baina azken urteotan ekoizpen lanean nabil buru-belarri. Halere, beti izan dut antzezpenerako gogo, oso gustuko dudalako. Binahi agentziaren bitartez **Bi anai** filmarako aukera sortu zitzaidan, probetarako deitu zidaten eta azkenean hartu ninduten, protagonistetako baten papera egiteko. Eta piloa disfrutatu nuen. **Lasa eta Zabala** filmagaz antzeko prozesua izan zen. Uste dut paper nahiko inportantea izan dela, historia horretan interesgarria esan gura dut.
—Gustura lotu zara lanagaz, eroso sentitu zara barriro ere film batean?
—Bai, izan ere, gauzak ondo kontatzea da pelikularengoa. Zuzendariak argi eduki du ez zuela joko inongo ideologiaren bitartek, baizik eta dokumentu ofizialetan dagoena kontatuko zuela. Hori oinarri, gustura ibili naiz, hasieratik jakin dut-eta egia den historia baten parte naizela; alde horretatik oso eroso, baita taldeagaz ere.



Julen Elgorriaga, gobernadore zibil ohiaren papera egin du Coteronek **Lasa eta Zabala** filman

—Horrelako gitxi egin da, pelikula garrantzitsua iruditzen zaizu?
—Bai, familiagaz zuzenean ez naiz egon, bai, orde, aktore protagonistak, zuzendaria... eta jarraipena emon diote hasieratik. Eurengan pentsatuta, ondo itxi bako zauria zen. Gaur egun, egoera dagoen moduan, ikusten da kapitulu hori ez dela ondo itxi, zauria zabalik dagoela. Beraz, ez da gauza erraza familiarentzat.
—Ekoizpenean buru-belarri, aktore moduan proiekturik badaukazu begi bistan?

—Oraintxe puntuan ez. Agentzia bategaz nabil eta eurak dira deitzen didatenak aukerarik sortuz gero. Aktore moduan lan egiteko horren atzetik ibili beharra dago: aukerak topaten, probak egiten, produktorakaz edo antzerki-taldeakaz harremanetan... martxan ibili behar da. Ni ekoizpen beharretan nabil murgilduta gau eta egun, eta ez daukat denborarik horretarako. Baina agentzia pozik dago, antza, emon dudan emaitza ondo dago eta aukera dagoenean animatzen naiz. ○

Zutaz harro egoteko! Erandio garbiagoa eta osasungarriagoa lortzeko kanpaina abiatu du Udalak



Joseba Goikouria Zarraga alkatea, kanpainaren txartelak ipintzen

Animalia-jabeak sentsibilizatzeko *Zutaz harro* kanpaina abiatu dute Erandioko Udalak eta Luberri Basolanak enpresak, hain zuzen ere, etxeko maskoten gorotzak biltzea bultzatzeko.
Horretarako, animalia-jabe bakoitzak bere maskotaren gorozkiak biltzeak dakartzan onurak azpimarratuko dituzte: “*Kaleak, umeen guneak eta bazter guztiak garbi eta osasungarri mantenduz gero, ez da infekzio-puntu arriskutsurik sortzen, eta gaixotasunak kutsatzeko arrazoi nagusieta-koa ekidin daiteke*”.
Udaletik azaldu dutenez, gainera, “*go- goan izan behar da pertsona nagusiek, ezin-*

duek eta umeek izaten dutela arriskurik handiena erortzeko, eta gorozkiek horrela-koak ere eragiten dituzte”.
Esatea dendari-elkartek ere lagundu dutela kanpaina bideratzen, beren bazkideen bitartez: Altagako 96 eta Astrabuduko 104 dendarik, horrela, kanpainaren kartelak eta eranskailuak dendetan ipini, eta flyer edo informazio-orriak banatu dizkiete bezeroei.
Kanpainaren baitan kokatzen dira ondoko neurriak ere: ErandioBusetan eranskailuak eta herriko berdeguneetan kartelak ipintzea, horien bitartez mezua herritar guztiei helarazi ahal izateko. ○

UDALAK 43 LANGABETU KONTRATATU DITU

Erandioko 43 langabetu kontratatu ditu Udalak, “*herritar askok egoera sozioekonomiko zaila bizi duela aintzat hartuta*”. Hori lortzeko zenbait ekintza bideratu du, aipatu kontratazioak tarteko, 830.000 euro baino gehiago inbertituz. Gainera, beste programa bi abiatu ditu udan. Horietako batean lanean ari dira 17 peoi, administrari laguntzaile bat eta ekonomia sustapeneko teknikari bat. Bestean, 12 peoi, 6 etxeko laguntzaile eta begirale bi. Azkenik, beste proiektu bi kudeatzen ari da Udalak: batetik, Enplegua eta Ahalmen Urritasuna, Erandio 2014 programa; bestetik, lantegietan praktikak egiteko programa bat.

MUSIKA ENTZUNALDIAK ABENDU OSOAN

Musika-eskolako ikasleen entzunaldiak izango dira hil osoan zehar, urte akabu legez. Abenduaren 5ean, piano-ikasleena izango da (19:00etan), eta 10ean, haizetresnen ikasleena (18:00etan); biak ala biak Astrabuduko kultur etxean izango dira. Hilaren 16an, barriz, Erandiogoikoako San Jose Egoitzara hurbilduko dira musikariak eta, azkenik, Gabonetako kontzertuak egingo dituzte abenduaren 17, 18 eta 19an: Astrabuduko kultur etxean, 19:30ean; azken egunekoa Udal Musika Bandak ere parte hartuko du.

UHOLDEEN KALTEAK SAIHESTEKO LANAK

Tartanga inguruan lanak egiten ari dira, uholdeek eragin ditzaketen kalteak ekiditeko. Zehazki, euri-uren kolektoreak egingo dituzte hiru tartetan, ur beltzakaz ez nahasteko. Izan ere, batzuetan, euri-urak hondakin uren kolektorerara eta hondakin-urak euri-uren kolektorerara sartu eta nahasi egin izan dira: “*Bakoitza bere bidetik isurketak hobeto joango dira, uriolen arazoa gixitu eta urak hartzen dituen herriko tokien mapatik puntu beltzetako bat ezabatuko da*”, Udalak dioenez.

ETXEKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, S.L.

- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
- IRTEERA DOAN

Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 • ALGORTA



BIZKAIA
irratia

BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan

F.M. 102.6 Mhz

www.bizkaiairratia.com



COMERCIAL de LIMPIEZA VILLAR S.A.

Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrialak
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Lan osogarria
- Elikagai Industriak higienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea.
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea.



Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo) Tf. 94 470 06 69 Fax.94 443 78 81 e-posta: bilbao@limpiezasvillar.com

BERTSO-JIRA EGAÑAGAZ
ETA BARROSOGAZ

Bizkaiko txapelketa gorenera iristekotan dabilen honetan, oraindino ere lehiatik kanpora goza daiteke bertsoez. Berbarako, abendu erdialderako proposamen polita dago Sopelan: bertso-jira musikatua. Txapelketako finalaren bezperan izango da: hilaren 19an, 20:00etatik aurrera. Kantatuko dute Andoni Egañak eta Odei Barrosok, eta musikagaz lagunduko die Oxabi taldeak. Pilotalekutik urten eta tabernaz taberna ibiliko dira: topatuko ahal dituzu!

Info+: www.sopelaudala.org

BIDEGORRI ZATI BARRIA
ATXABIRIBILERAKO

Atxabiribil etorbideak bidegorria, espaloi zabalak eta azpiegitura hobeak izango ditu, Udalak iragarri duenez: “*Etorbidearen erabilerak berrantolatuko dira hurrengo hiletan: Itsasalde kaleko biribilgunetik Atxabiribil hondartzara eta Sopelmar auzora doan errepidean izango dira hobekuntzak*”. Horrela, bertara “*bizikletaz, oinez, autoz edo autobusez joatea egongo da, segurtasun osoz*”. Zehazki, errepidearen eskuin aldean (hondartzara jaisten) sortuko dute bidegorria egingo dituzte lanak zein hobakuntzak. Aurrekontua 520.000 eurokoa da.

Info+: www.sopelaudala.org

BIRZIKLATZE-TASAK EZ
DU GORA EGIN

Udalaren datuen arabera, Sopelako “*birziklatze-tasa ez da %17-tik igo, 5. edukiontzia izan arren*”. Horregatik, Sopelako Hondakinen Kontseiluak hausnarketa sakona bultzatuko du gai horren inguruan, “*2020. urtean %50-eko tasara heltzeko asmoz, Europako Kontseilu eta Parlamentuko 98/2008 arauak zehaztutako kopurura, hain zuzen ere*”. 2012an hondakinen %16,48 birziklatu zen eta 2013an, bosgarren edukiontziagaz, %16,85.

Info+: www.sopelaudala.org

Gabonetan bonbon!
Abendurako egitarau oparoa dago kultur
etxean, oporretakoa berezia umeentzat



Sutondoan lana antzeztuko dute abenduaren 29an

Urte akabua hurbildu ahala kultur etxeek egitarau berezia prestatu ohi dute, batez ere Gabonei begira. Kurtzion ere antolatu dute zer edo zer, eta ez bakarrik Gabonetarako; hil osoan egongo da zer ikusi eta entzun, askotariko gaiet buruz.

Genero-ikuspegiagaz lotuta, ekitaldi bi izango dira asteotan: abenduaren 11n, genero-ikuspegiko zinema saioaren baitan proiektatuko dute *Las brujas de Zugarramurdi*; hilaren 12rako, barriz, berbaldia antolatu du Meñakoz elkarteak, genero-bortizkeriari buruz.

Bestalde, dantzari ere leku egingo

diote: abenduaren 13an, *Argh!* ikuskizuna taularatuko dute; hilaren 14an, Royal Academy Estudio Lorealderen emanaldia izango da; eta 30ean, Nikolayeva errusiar balletak dantzatuko du.

Azkenik, Gabonetako ekitaldiak batez ere umeei zuzenduta daude: hilaren 23an, *Olentzero eta zaku magikoa* antzeztuko da; eta 29an, *Sutondoan*. Ohi legeaz, abenduaren 24an izango da Olentzeroren kalejira (17:30ean abiatuko da Urgi-txieta plazatik). Gainera, Gabonetako parkea ipiniko dute 26tik 28ra Urko kiroldegian; eta doakoa izango da! ○

Jon Urraza Intxausti > aktorea eta zuzendaria

“Antzerki-eskolak ikasteko eta hobetzeko era ikaragarria dira; talde polita sortu da”



Domekero elkartzen dira antzerki-tailerra egiteko, Kurtzio kultur etxean

Antzerki-tailerra emoten dabil Jon Urraza Intxausti helduentzat eta bere asmoen barri emon digu; sei aktore amateurrek osatzen dute taldea.

—Azaroan abiatu duzue tailerra, ezta? —Bai, aurretik ere eskaini izan dute horrelako tailerrik Sopelan, baina azken urteotan ez ei du arrakasta handirik izan. Udan Algortako neska batzuek proposatu zidaten ikastaro edo antzeko bat emotea. Sopelako Udalagaz berba egin nuen aurtun tailerra aterako zen galdetzeko, nik ikasle batzuk eroango nituela esan nien eta kopurua osatuta tailerra abiatu dugu; domeketan elkartzen gara.

—Zer asmo daukazu tailerrera? —Antzerkia egiteko gogoia daukaten lagunez osatuta dago, zaletasun moduan praktikatzeko eta ikasteko. Asmoa da prozesu horretan gozatzea, seriotasun battegaz eta helburu artistiko batzuekatz, baina sufritu barik.

—Obraren bat prestatuko duzue hasie-

ratik edo zertan zabiltzate? —Eskoletan saiatzen naiz uztartzen ikasten dena eta taularatuko dena. Kontua da, askotan, antzerki-tailerretan zera ikusi dudala: irizpiderik gabe, ariketak handik hemendik hartzen direla, eta ikasturte amaierako funtziorako aurretik landutakoa alboratzen dela, memorizazioa eta ahotsa altu proiektatzea bakarrik bilatuz, baina landu den guztia ahaztuz. Nik gura dut eskoletan landutakoa baliatzea balizko funtzio horretan; beraz, interpretazioa

«Asmoa da ikas-prozesuan
gozatzea, seriotasunez
baina sufritu barik»

eta sormena uztartzen ditut. Bilatzen dut taula gainean benetako gizakiak egotea, sinesgarriak, eta eurak natural sentitzea eta gozatzea. Eskolak osagarri ona dira, izan ere, astero daukazu harremana lanaren esentziagaz. Ikasteko eta hobetzeko era ikaragarria da; Sopelan talde oso polita sortu da, oso pozik nago. ○

DIDAK
hamilton
IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa
eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
 - Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

ANDER
DEVNA
IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

OINUTSIK
KONTSULTA PODOLOGIKOA
Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4
48600 Sopelana
Tf. 94 404 74 20
CITA PREVIA
oinutsik@euskaltel.net



OINAK DITUZU
ONGIZATEAREN
ZUTABE, OINEZ
EDONORA HEL
ZAITZKE!!

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.

OIARBIDE
DEKORAZIOA

- Pladur: Tabikeak, zapaiak, baldak
- Eskaiola: moldurak, kornisak
- Isolamendua: Beroa, hotza, zarata...

Tf. 656 76 98 10 gorkaoiarbide@hotmail.com
Andikoetxe 2, 48993 GETXO



Gosariak,
Pintxoak,
Giro eta musika onena
ONGI ETORRI!!

Bentatxu 2 Tf. 94 676 03 28 SOPELA

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96



TXAKURREI ERASO EGITEKO JANARI ZATIAK

Hainbat herritarrek Berangoko Udalarri jakinarazi diotenez, Lantzarteko landan iltzez beteriko janari zatiak aurkitu dituzte, ustez, txakurrei kalte egiteko helburuagaz. Momentuz kasu bakarra jakinarazi zaio Udalarri; hala ere, mota honetako erasoek sor ditzaketen kalteen kontziente, Udalak txakurren jabeak ohartarazi nahi ditu, erne egon daitezen.

Info+: www.berango.net

MERCADONA URIBE KOSTARA HELDUKO DA

Basaurin, Barakaldon, Bilbon eta ondoren Berangon. Mercadona kateak supermerkatua irekiko du El Molino garagardotegiaren ondoren, Landa Bidea eta Arana Bidea kaleen artean, hain zuzen ere. Aurreikusi dutenez, irekiera 2017an izango da, eta 40 lanpostu sortuko ditu. Bestalde, Decathlon bat ere inguruan eraikiko dutela jakinarazi dute Udaletik.

BIGARREN ESKUKO AZOKA ABENDUAREN 7AN

Bigarren eskuko produktuen maitaleek galdutako hitzordua izango dute abenduaren 7an Berangon. Izan ere, egun horretan, Berangoko bigarren eskuko 4. merkatua izango da tokiko udal pilotalekuan. Interesatuak 11:00etatik 15:00era arte bertaratu ahal izango dira. Bertan salduko diren artikuluen prezioak libreak izango dira, hau da, saltzaileen esku geldituko dira, eta ezingo dute ez janaririk, ez edaririk ezta animaliarik ere saldu.

uk zure publizitatea hemen !

944 911 337 - publiuk@aldizkaria.biz

Abbyren omenezko diskoa

Lanagaz lortutako irabazien zati bat Senegalera bideratuko dute




Diskoa Bilboko Campos Eliseos antzokian aurkeztu zuten

Otxandategi abestaldeak *Abby Potxola* diskoa argitaratu du, Abby izeneko Senegalgo neskato baten historia kontatzeko. Neskatoak giltzurruneko gaitza zuen, eta Euskadira bidaiatuko zuen tramendua jasotzeko asmoz; baina, zoritxarrez, gurera etorri baino lehenago zendu zen. Albuma euskaraz grabatu dute, eta horretan Njobak, Abbyren aitak, parte hartu du. Berangoko abestaldeak Jammu talde senegaldarragaz egindako kultur trukeko bidaia batean ezagutu zuen Abby. Neskatoa giltzurruneko gaitza sendatzeko tratamendu baten zain egon

zen denbora luzez. Hala, abestaldeko zuzendariak neskatoa Euskadira ekartzeko izapideak hasi zituen, baina, gurera etortzeko bidaia baino aste bi lehenago zendu zen, 17 hilabete zituela. Horren aurrean, berangoztarrek Abbyren omenezko proiektua abiaraztea erabaki zuten, eta Euskal Herriko eta Afrikako doinuak tartekatuz, 13 abestiz osatutako lana argitaratu dute. Diskoa nobedadea izango da Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan, eta saldutako kopia bakoitzeko 1 euro bideratuko dute Jammu taldeko familientzat. ○

Pedro Elordui > Kalabaza erraldoi solidarioa

“Kalabaza erraldoiagaz zerbait egin behar nuela uste nuen”



Azaroaren 22an eman zioten hasiera inizatibari Indarra taldeagaz egindako bazkari batez

Beste urte batez, Pedro Elordui kalabaza erraldoi bat landatu du gaixotasun arraroak dituzten Urdulizeko bi urmeri laguntzeko asmoz. Aurtengo kalabazak 100 kilo inguru pisatzen ditu, eta abendura arte egongo da ikusgai Urdulizeko Ayoberri sagardotegian. Itsulapikoak egongo dira bertan, eta nahi duenak umeei laguntzeko dirua sar dezake horietan. Horren truke, Elordui kalabaza zatiak banatuko ditu.

—Laugarren urtez kalabaza erraldoi bat landatu duzu Alluitz Arana eta Aimar del Pozo umeentzako dirua lortzeko helburuagaz. Zelan otu zitzaizun inizatiba hau?

—Kalabazagaz zerbait gehiago egin behar zela pentsatu nuen. Lehenengoagaz esposizio bat egin nuen, eta jendea zein telebistakoak hona etortzen ziren hura ikustera, eta bigarren urtean pauso bat harago joatea otu zitzaidan. Ume hauek Urdulizekoak dira, eta horientzako dirua biltzeko itsulapiko batzuk jarriko nituela

komentatu nien euren gurasoei. Ados agertu ziren, eta jendeak laguntza handia eskaini zuenez, urtero lagun batek Suitzatik ekarritako kalabaza haziak landatzen hasi nintzen ume horiei laguntzeko asmoz.

—Dirua uzten dutenen artean kalabaza zatiak banatuko dituzu...

—Bai, baina ez dut kalabaza erraldoi

«Iaz 1.900 euro inguru bildu genituen inizatiba honez»

hau zatituko, txikiago batzuk zatitu eta jendearen artean banatuko ditut. Hona hau abendura arte utziko dut, hurbiltzen den jendeak ikus dezan. Ondoren, iaz bezala, itsulapikoak urtarilaren 6an zabalduko ditut. Hala, egun horretara arte dohaina eman ahal izango da Ayoberri Sagardotegian. Edozein etor daiteke eta nahi duen diru kopurua utzi, berdin dio euro bat, bost euro edo 50 zentimo izatea; nik zati bat emango diet horren truke. ○



ukskateparkberango@gmail.com

Tf. 664 226 700

Sabino Arana 60, BERANGO

Kopiak
SAL GAI

UK aldizkariaren bulegoan



Uribe Kostako aldizkariaren ekoizpena



zaindu
Esku Terapia Zentrua
Osteopatia · fisioterapia

Ane Nafarrate Martin
Doctor landa 4, Sopela
Telf.: 946026779



AIXERROTA BHI

• TEKNOLOGIKOA
BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)



INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / Tf. 94 491 17 86

AURREKONTU PARTE
HARTZAILEAK LEMOIZEN

Lemoizko Udalak jakinarazi duenez, abendua-
ren 31rako ez dute zorrik izango. Hori dela-
eta, epe ertain edo luzean garatu ahal izango
diren inbertsio berriak planteatzen hasteko au-
kera izango dute. Hala, inkesta bat zabaldu
dute auzotarrek egokien jotzen duten inbertsi-
oen gainean dauzkaten irizpideak
jakinarazteko. Erantzunak anonimoak izango
dira eta prestatu dituzten buzoietan sartu be-
harko dira.

EKITALDIZ LEPO DATOR
PLENTZIA URTE AKABUAN

Plentziako agenda gainezka dator oraingoan:
Plentzia Telebistak urtezahar-gauean emango
duen saioa grabatuko du abenduaren 6an
Astillero plazan, 20:00etan; abenduaren 15era
arte Araldiren X. Argazki Lehiaketako erakus-
keta dago Goñi Portalen; IV. Gabon-postalen
umeentzako lehiaketa antolatu dute eta lanak
abenduaren 12ra arte aurkez daitezke; eta
azkenik, urtarrian hasiko diren ikastaroetan
izena eman ahalgo da abenduaren 24ra arte.

GABONAK BADATOAZ URIBE
KOSTARA!

Kaleko gabon argiek jakinarazten dute gabo-
nak heltzeaz daudela. Horregaz batera, hain-
bat ekimen antolatu dituzte eskualdean, hala
nola, Barrikako eta Plentziako Olenzeroren
jaitsierak eta Barrikako umeentzako elurretako
bolen tailerra abenduaren 29an.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

Plentzia

Metro Bilbaok Plentziako geltokia itxi
nahi duela **salatu dute sindikatuek**



Metro Bilbaoko langileek kontzentrazioa burutu zuten azaroaren 11n Plentziako geltokian

2015eko apirilean, Aste Santuagaz, hasiko dituzte Urdulizeko trenbide pasa-
gunea lurperatzeko lanak. Horien ondo-
rion, *“bi urtez edo”*, Plentziako eta Urdu-
lizeko bidaia-eriek autobusez egin beharko
dituzte Sopelako geltokirainoko joan-e-
torriak. ELA, CIM, CCOO, UGT, LAB
eta ESK sindikatuek azaldu dutenez,
*“geltoki horien erabiltzaileentzat nahikoa
eragozpen sortuko ditu”*. Horrez gainera,
Metro Bilbaoko zuzendaritzak neguko
hilabeteetan Plentziako geltokitik langi-
leak kendu nahi dituela salatu dute: *“ho-
rren ondorioz, ez da informaziorik, beze-
ro-arretarik, ezta txartelak erosteko lagun-
tzarik ere emango 16 hilabetez, gutxi go-
rabehera”*. Plentzia inguruko foru errepi-
deak eta geltokirako sarbideetan ere zir-
kulazio-segurtasun handirik ez dagoela
hori geltokian langilerik ez egoteari gehi-
tuta, *“Plentziako geltokia inolako zerbi-
tzurik gabeko galeku bihurtuko da bi*

negu luzez”, adierazi du Metro Bilbaoko
enpresa-batzordeak. Egun, hiru langile
egoten dira Plentziako geltokian txanda-
ka, eta hori itxita dagoen bitartean, tokiz
aldatuko dituzte. Sindikatuen arabera,
arazoa ez da langileak kaleratuko dituzte-
la, baizik eta zerbitzuaren kalitatea eta

«Arazoa ez da langileak
kaleratuko dituztela,
zerbitzuaren kalitatea
kaltetuko dutela baino»

bezeroenganako arreta kaltetuko dutela:
*“Plentziako geltokiak eta bizilagunek gel-
tokiko langileak behar dituzte zerbitzu e-
gokia jasotzeko, bai zerbitzua normalean
ari denean, baita are gehiago, trenen or-
dezko autobus-zerbitzu luze hori bezalako
egoera degradatuan ere”*. Hori guztia dela-
eta, sindikatuek Plentziako geltokia *“urte
osoan zehar”* zabalik egotera konprometi-
tzea eskatu diote Metro Bilbaoko zuzen-
daritzari o

Abe. 1 - Abe. 22

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 944 911 337

ZINEMA

GETXO

- ▶ **Las aventuras de Peabody y Sherman.** Abenduak 14, 17:00etan. Musika-eskolan. 2,10 euro.
- ▶ **Una noche en Mexico.** Abenduak 19, 21:00etan. Andres Isasi musika-eskolan. 2,90 euro.
- ▶ **Los tres chiflados.** Abenduak 21, 17:00etan. Musika-eskolan. 2,90 euro.

SOPELA

- ▶ **Las brujas de Zugarramurdi.** Abenduak 11, 18:00etan. Kurtzion.

BERANGO

- ▶ **Free birds, vaya payasos.** Abenduak 14, 18:00etan. Antzokian.
- ▶ **Olentzero, Gabonetako ipuina.** Abenduak 21, 18:00etan. Antzokian.

ERAKUSKETAK

BERANGO

- ▶ **ArgiHizkiak.** Abenduaren 9tik 19ra. Berangoeta kultur etxean.

GETXO

- ▶ **Sexu-esplotazioa, genero-indarkeriazko beste era bat.** Hilaren 19ra arte. Algortako kultur etxean.
- ▶ **Bosteko.** Abenduaren 10etik 28ra. Algortako Torrene-aretoan. Doan.

PLENTZIA

- ▶ **Emakume Begiekin.** Abenduaren 15era arte. Goñi Portalen.

ANTZERKIA

SOPELA

- ▶ **Lingua Navajorum.** Abenduak 5, 20:00etan. Kultur etxean. 3 euro.
- ▶ **Argh! (dantza).** Abenduak 13, 20:00etan. Kultur etxean. Doan.



Arrakasta handia dauka Leioako Azokak eta jende ugari batzen da

▶ **Azoka**

Baserriko produktuak eta abereak, Leioan

Baserritik Leioara, produktuak dastatu eta erosi ahalgo dira abenduaren 14an, Leioako nekazaritza eta abeltzaintza azokan: barazki, txarriki, gozo, gazta, ezti, ardo, e.a. Bulebarren, eta Jose Ramon Aketxe eta Errekalde plazetan egingo da, goizez. Gainera, abereak ere erakutsiko dituzte: behiak, idiak, zaldiak, ahuntzak edota hegaztiak. Bestalde, lehiaketak eta bestelako ekimenak ere prestatu dituzte: dantza-erakustaldia, dastatzeak, herri-kirolak, e.a. Esatea 14:00etan banatuko dituztela ondoko lehiaketetako sariak: Idiazabal Gazta Jatorrizko Izendapenaren Bizkaitar Ekoizleentzako XVI. Lehia-keta, eta salmenta postuak atontzeko eta girotzeko lehiaketa.

• **Non:** Erdigunean • **Noiz:** Abenduaren 14an, goizez

BERANGO

- ▶ **Txipli txapla.** Abenduak 6, 18:00etan. Antzokian. 3 euro.
- ▶ **Patxin eta Potxin.** Abenduak 22, 18:00etan. Antzokian. Doan.

LEIOA

- ▶ **Txapeldun.** Abenduak 12, 20:30ean. Kultur Leioan. 12 euro.

GORLIZ

- ▶ **Ipuin-kontaketa.** Abenduak 20, 18:30ean. Sertutxenan.

MUSIKA

GETXO

- ▶ **Ruta 637.** Abenduak 11, 20:00etan. Algortako Jolasurre tabernan.
- ▶ **La Traviata (kontzertu antzeztua).** Abenduak 13, 19:30ean. Andres Isasi musika-eskolan. 8 euro.
- ▶ **Xabier Lijo eta Jorge Mengoiti.** Abenduak 20, 19:30ean. Andres Isasi musika-eskolan. 8 euro.

PLENTZIA

- ▶ **Kantagune: Gabon kantak.** Abenduak 19, 19:00etan. Ibilbidea: portutik erriberara.

SOPELA

- ▶ **Bertso-jira musikatua.** Abenduak 19, 20:00etan. Pilotalekutik.

LEIOA

- ▶ **Solis String Quartet.** Abenduak 19, 21:00etan. Kultur Leioan. 15 euro.
- ▶ **Leioako Gazte Orkestra.** Abenduak 20, 20:00etan. Kultur Leioan. 4 euro.
- ▶ **Orpheo abesbatza + musika banda.** Abenduak 21, 20:00etan. Kultur Leioan. 4 euro.

BESTEAK

GETXO

- ▶ **Argia Ereiten Euskara Saria.** Abenduak 2, 20:00etan. Fadura kiroldegiko areto nagusian.
- ▶ **Ahobien gala.** Abenduak 13, 18:00etan. Algortako kultur etxean.

PLENTZIA

- ▶ **Plentzia Telebistaren urte akabuko kanpaikaden grabaketa.** Abenduak 6, 20:00etan. Ontziola plazan.

GORLIZ

- ▶ **Azoka.** Abenduak 8, 10:00etatik 15:00etara. Elizako plazan.

SOPELA

- ▶ **Hitzaldia genero-bortizkeriari buruz.** Abenduak 12, 19:00etan. Kultur Etxean.
- ▶ **Bizkaiko pala-txapelketako finalak.** Abenduak 19, 19:00etan. Pilotalekuan.

BARRIKA

- ▶ **Postal tailerra.** Abenduak 22, 17:30ean. Liburutegian.

Katamalo Plateruena Kafe Antzokian emandako agur kontzertua zuzenean!


Plateruenaren alde **Katamalo**k egindako lana. 8€an eskuragai gurean.

PLATERUENA

Ziorterran,
Durango kultur bizitzako.

...eta urte
ASKOTARAKO!


[albuma]



Gora Mexiko, carajo!

Aktoreak prest? Ondo makillatu eta jantzi, eta taulara! Ileordeak erritmoari eutsiko ahal dio! *Kabaret Chihuahua* iritsi da Sopelara Pabellon 6 eta Teatro Mutanteren eskutik: has dadila ikuskizuna! *Gora Mexiko, carajo!*, iragartzen du kartelak. Goazen goatzera, ahaz ditzagun arazoak! Musikal hau barre, kantu eta dantza piper-opila da, festa! Ospa dezagun bizirik gaudela; eta gora Mexiko, kabroiak!

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Rilos ontzia

hondoa jota

1999ko abenduan Europa mendebaldea gogor jipoitu zuen Lothar ekatzaildiak haize bortitzak eta egun euritsuak eragin zituen gurean... Horien ondorio izan zen, berbarako, abenduaren 27an (argazkia biharamunean egin zen) Rilos merkantzia-ontzia Ereagan hondartzea. Aurretik, Jose Antonio Echeverria izendatutako ontzia Santurtziko portuan ertzeratuta egon zen, Maltako bandera zeroan eta kubatar eskifaia; Ereagan hondoa jo zuenean 36 marinel zeuden barruan. Merkantzia-ontziaren pisu eta berezitasunak zirela eta, erreskate-edo askatze-lanak oso konplexuak izan ziren (esaterako, atoiointziei kableak apurtu zitzaizkien e.a.), eta hainbat ahaleginen ostean, marea biziei itxoitea erabaki zuten. Hala, 2000. urteko urtarril amaieran lortu zuten hondartzatik kentzea. Diotenez, erreskate-lanak burutu zituen enpresari, horien ordainetan, 1 euroren truke saldu zioten Rilos (75 milioitan zenbatetsita zegoena); gerora, desegiteko.

MIKEL MARTINEZ DE TRESPUENTESEK UTZITAKO ARGAZKIA

[berbetan]

1976an indar armatuek estatu-kolpez Argentinako gobernua hartu zuten; 1976tik 1983ra iraun zuen diktadura-aldiak. 30.000 lagun desagertu, bahitu, torturatu zituzten; ehundaka akatu. Seme-alabak bilatzeko eta berreskuratzeko helburuz, Maiatzeko Plazako Amak sortu zen. Desagerraldian izandako seme-alaba haien ume asko eta asko erregimenak adopzioan eman zituen; bilobak bilatzeko sortu zuten Maiatzeko Plazako Amamak. 115 biloba aurkitu dituzte, 114.ena Amamak-en presidente den Enriqueta Estela Barnes de Carlottoena (Buenos Aires, 1930). Azaro hasieran Getxon izan zen, eta tartetxoa gorde zigun...

Estela Barnes de Carlotto

Amamak: iluntasunean kriseilu

Testua: **I. Sagarminaga** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Egun batzuk igaro dituzu gurean, ha-
maika elkarrizketa egin dizkizute; zein
izan da gehien errepikatu den galdera?

—Kontu biren ingurukoak: aita santuari
bisita, eta biloba aurkitu izanaren nire
sentsazioak. Amamakaz 37 urteko jar-
dun-ibilaldia daukat kontatzeko, hasta-
penetatik has naiteke, nire alabei zer ger-
tatu beldur nintzen hartatik: militanteak
ziren, unibertsitate-ikasleak, diktadura-
ren aurkoak. La Platako kaleetan antze-
maten zen giroa: bahiketak egun-argiz,
gauez oihuak, metrailadore-hotsak... Izu-
garria zen euren aurkakotasuna nabar-
men ageri zuten seme-alabak genitue-
nontzat; euren jarduna legala bazen ere,
gobernu legala zegoenean behintzat, Isa-
bel Peron buru... Ostera, 1976ko mar-
txoaren 24tik aurrera jardun hori guztiz
legez kontrako bihurtu zen; eta jazarpena
krudela, basatia! Orduko irudia dut:
garaiko Ford Falcon autoak, kotxe kala-
mastra eta patente bako haiek, barruan
faxistak; armak bilduta atzeko eserlekuan,
ikusi egiten ziren! Gero, bahitutako sena-
rraren bilaketa lehenengo, ostean Laura
—alaba- eta bere bikotearen bilaketa; zelan
elkartu nintzen nire adiskide Amamakaz.
Bakarrik egoteari utzi nion, eta elkarren

alboan ideiak, estrategiak, eta bizimodua
aurrera ateratzeko bilketa-moduak elkar-
bana genitzakeela sentitzen genuen; ba-
genekielako gu ere biktima izan gintezke-
ela... Gure mugimendua oso etxekoa izan
da, artisauena lakoa, detektibe-agentek
bagina legez jokutzen genuen, beti bu-
ruan zelan egin, zelan ikusarazi gertatzen
zena eta mina, eta non eskatu, aldarrika-
tu... Maiatzeko plazan izan behar zuen,
aurrean zeuden-eta legez kontra goberna-
tzen ari zirenak. Eta errondarenak esan-
gura argia du: setio-egoeran, hirunaka
baino ezin ginen batu, eta behin eta be-
rriro bultzatzen gintuzten, ibil gintezen

**“Zorotzat gintuzten... Ibiltzen utzi
ziguten, eta oker zebiltzan!
Bizitza osoa eman dugu ibilian”**

oihukatuz... Erronda egin nuen lehenen-
go aldian, egiatan, eroan nindutelako
izan zen; irakasle xume bat baino ez nin-
tzen, ez nuen egundo politikan parte har-
tu, ezta ezelako matxinadetan ere. Bel-
durtu egin nintzen, zaldiak ere gainera
zetozkigun, ur-tanketen zurrustez blaitu.
Baina, “*ibili, aurrera.*” esaten zidaten

adiskideek. Eta hasi nintzen ibiltzen, gaur
oraindino hala nabil! Beti, batek eman
behar duen aholkua: dena delako borro-
ka edo jomuga bat dagoenean, taldean
egon beharra dago! Taldeak sendotu egi-
ten du! Ideiak partekatzea, eztabaidatzea
eta gauzatzea. Amamen alderik liluraga-
rriena da: 37 urte daroatzagula eta bata
bestearekiko oso ezberdinak garela! Elka-
rri begiratu eta pentsamenduz, hezkun-
tzaz, herrialde eta erlijio ezberdinetakoak,
baina batera gaude! Eta elkarlotutako
gure eskuak ez ditugu inoiz soltatuko!
Alajaina, geure biloben bila gabiltzalako;
eta gure seme-alabak?! Orain, badakigu

hilda daudela, batzuok aurkitu baditugu
ere, egunero, gure gunera joaten jarraitu-
ko dugu! Ni Maiatzeko plazako Ama-
mentzat bizi naiz daborduko; neure
buruaren eta familiaren osasunerako, ete-
nalditxoa egiten dut noizbehinka, etxea
eta etxekoak zaintzeko, 14 biloba dauz-
kat! Horregatik ez balitz, jardunean:



dokumentuak idatzi, eskutitzak erantzun, Amamak erromeria delako: jendea agurtzera eta sartu-irtenean dabil beti, harrera egin, babesa eskaini. Sarri pentsatzen dut: zelan itzuliko dut eskaintzen didaten maitasun hori dena! Halakoa da gure bizitza; hala osatu behar izan dugu, baina orain ezingo genuke utzi!

—Laura alabaren hilotza itzuli zizuten, ez zenuen bila jarraitu beharrik, baina haurdun zegoela jakitean...

—Laura eta bikotea bahitu zituztenean, orain badakit Walmir zela, orduan ez nekien haren izenik, bilaketa izugarria izan zen; eta ez, ez nekien haurdun zegoenik. Orduko klandestinitatean zegoelako, aurretik nire senarra bahitu zutela bazekiela eta horregatik konturatu zen bila zituela. Berak beti zioen: “*zergatik ibiliko dira nire atzetik, ni perrexila baino ez naiz!*”. ‘perrexil’ da ezer gitxi egiten duena. Baina, militar batek esan zuen milaka desagertuko zirela: militanteak, horien lagunak, senideak baita interes bakoak eta epelak ere! Diktadura denfendatzen ez zuen oro arriskutsua zen. Senarrak eta biok umedun egon zelaren berri izan genuen bizirik irtendako batek kontatu zigulako. Orduan bai, *habeas corpus*-eko errekurtsua nire alabagatik eta haren umeagatik aurkeztu nuen; oso arraroa zen “jaio ez zen batengatik” *habeas corpus* bat egitea. Epailcek ez gintuzten ezta ikusi nahi ere, arbuiazen gintuzten. Laura jada hilerrian zegoenean, jaso genuen erantzuna: “*Ez dago atxilotuta. Leku ezezagunean dago*”. Estatuak berak itzuli zidan alaba hilda! Egiatan, neurriz kanpokoa zen, gehiekeria izugarria! Ez nekien mutil bat ala neska bat bilatu behar nuen; behin, biloba zelakoan, neskato baten atzetik ibili nintzen... 1980an Brasilera joan nintzen, bizirik irtendako hainbat errefuxiatu zeudelako, kontzentrazio-esparruetatik pasatutakoak. Haietako bikote bategaz berbetan jakin nuen, haiek “Rita” izendatzen zuten, nire alabaren goitizena, gizonezko biloba bilatu behar nuela. Militarrek ez dute inoiz

ezer esan, bizirik irtendakoen lekukotzen-gatik lortu dugu apurka informazioa. Lauraren hilotza eman zigutenean esan ziguten “*ez da inoiz bahiturik egon; terrorista zen; leporaino armatuta zegoen; errepide-kontrol bati aurre egin zion; tiro egin zuen eta tirokatu genuen*”. Gezur galanta zen, neuk indargabetu beharrekoa; zelan egin?! Gezur horrek munduari bira eman bitar-

“(bilobek) ulertu beharrekoa: biktima zara, gizateriaren kontrako delitu batena; odolean duzu horren froga...”

tean, nik beste historia bat kontatzen nuen. 1985ean epaileri gorpua hilobitik ateratzeko baimena eskatu, eta hor zientifikoki ziurtatu zen: bahituta izan zutela (hortz-haginen epe laburreko narraiduragatik), umedun egon zela eta erditu zela (pelbiseko markagatik), eta hilketa ez zela enfrontamendu batean izan (30 cm-ko distantzian egindako tiroak ziren; bizkarretik). Argi eta garbi lotu zen!

—Banku genetiko bat duzue, Amamen eta Amen DNAgaz, norbaitek zalantza balu joan eta froga egiteko... Zure bilobaren kasua hala izan da. Halere, ez da erraza; baina zure ustez hazi dituztenei ez diete ezertxo ere zor, bere nortasuna ezagutzeko pauso hori eman beharko lukete... —Noski! Azpiratuta daude, lapurtu zituztenen esklabo dira, militarrek lapurtuta-

“Demokrazia ziurtatuta; halere, falta da! Ez da amaituko azkena epaitu arte; kartzelatik mehatxatzen badarraite ere”

koen kasuaz ari naiz, agian haien gurasoak ere akabatu zituzten; edo militarren konplize diren zibilez ari naiz, egindakoa ostendu izanagatik; gure bilobetako batzuk hazi zituzten horiez, legalki adoptatu zituztenez. Batzuetan jende ona dira, egia esan zieten: adoptatuak zirela. Orduan aske dira, ez dute halako fideltasun sentipe-

nik. Ostera, hezten dituztenak hiltzaileak direnean, neska-mutikoei esaten diete “*bazoaz, zure “ama” hilko duzu*”, “*nik hau eta bestea eman nizkizun*”, esker-emate fakturak pasatzen dizkiete. Horiek zaharrez hil ostera itxoiten dute, eta eragin dieten erru horretatik aske direla, orduantxe hurreratzen dira. Halere, badira oso kutsatuta daudenak ere, jakitearen eta ezagutze-

aren kontrako hezkuntzan haziak, ez dute ezertxo ere jakin gura. Gure ustez, kontua ez da zer gura duzu; zer zor/egin behar duzun baino. Biktima zara, eta ez edozelako delitu batena, gizateriaren kontrako delitu batena baino, eta zure odol-gorputzean zuk duzu delitu horren froga; eta nor zaren ezagutzeko eskubidea ere bai. Gero, gura duzuna egin. Beti diogu: aurki dezagun biloba, baina ez esklabutzeko, “*zure amama naiz, maite zaitut!*” esateko. “*Ez dut ezer jakin nahi...*” badio, pazientzia handiz itxarongo diogu. Batzuetan urteak behar izaten dituzte; bestetan, nire kasuan, ordu laburrak baino e: elkar eza-gutu, besarkatu eta gaur egun gure familia bihurriaren parte da. Zoritxarrez, beste askotan Amamek asko sufritu dute, ez zekiten zer egin, baina gure psikologo-tal-

keta batek bertan behera utz lezake? —Ez da erraza izan. Guk zelanbait irakasegai hau hedatu behar izan dugu, gaur egun ere, gizarteari bidea zabaltzen dihardugu. Gure atek beti zabalik daude, hau denona da, diktadurak denok jo gintuen; “ni ez ninduen jo” diotenek ere; agian ez zieten inor desagerrarazi, baina beldurrak jota bizi izan ziren, hezkuntzan, ekono-

“Plaza historiko-sinbolikoa da; orain mundua dugu plaza! Baina errondak erakusten du: oraindino ez da amaitu”

mian galdu zuten, askotan familia erditututa... Kontzientzia-hartze hori errespetuz hedatu dugu, beti, maitasunez eta elkar ulertuz; irakasgai hori gure herrialdean eta mundu osoan zabaldu dugu. Ondorioz, gizarteak erantzun du; esaterako nire biloba Guido aurkitu genuenean: auzoko asko eta asko hurbildu zitzaizkidan zoriontzera. Horrek adierazten digu herri argentinarrak bere egiten dituela kontu onak, baina ulertu duela txarrak ere eurenak direla. Horregatik uste dut, demokrazia ziurtatuta dagoela. Halere, falta da! Hiltzaileen epaiketak, epaitegi arruntetan egiten da-biltza; lekukotza gogorren aurrean eurek isilik beti; kasu batzuetan, kartzelatik bertatik mehatxuak bota dituzte, desargerpe-

nen bat ere eragin. Bada aldeko duten sektore politiko bat, esan ere egin dute “*presidente izanez gero, denak aske utziko ditut*”. Jainkoak gorde gaitzala! Gobernua... Alfonsin: gizon ona zen, denok ospatu genuen; hurbildu ginen pentsatuz eurek egingo zutela, ez genuela aurrerantzean egon beharrik izango; baina inpunitate-lege bi izan ziren, obediencia eta amai-pun-

tua. Kalean paseoan alboan hiltzailea izan genezakeen, nik pentsatzen nuen: “*egunen batean, norbait hurreratu eta esango dit: Andrea, ni izan nintzen zure alaba tirokatu zuena*”. Eta nik zer egin behar nuen? Dena barkatu zioten-eta! Herritar baten-tzat hori izugarria da. Zorionez, Nestor Kirchnerregaz kontuok aldatu ziren, eta Cristinak bide berari darraio. Ziur gaude hau ez dela amaituko azken-azkena epaitu arte. Tradiziozko estatu-kolperik ez dela egongo ziur gaude, jakin arren gaur egun badirela estatu-kolperako beste metodolo-gia eta modu batzuk. Hurrengo gobernua ez da berdina izango, baina nire ustez, jo-era berdintsuari eutsiko dio: herri-proiek-tu eta nazio mailako proiektuagaz jarraitu-

ko duela, hau da, ez diktadurako delituak bakarrik konpondu, baizik eta urratzen diren giza-eskubide guztiak: lanerako eskubidea, etxebizitza, hezkuntza-eskubidea e.a. Gurean pobrezia badelako, gutxitzen badoa ere. Horretarako ekintzak egiten dira, monopolizatutako komunikabideek horien berri eman ez arren. Kanpo-zorra ordaintzen gabilta, putre-funtsekin bada ere. Cristinak Obamari aurpegira esandakoak, ufa! Erasotu barik, zegokiona esatea... beste presidenteren batek esan dizkio? Gainera, emakumezkoa izanda... —Argentinarrak batek esana: aita-aititek ezin dutela elkarterik osatu, ahaleginetan futbolaz lar eztabaidatzen zutelako... —Ene koitaduak! Badira, gugaz errondan dabilta! Norbait galdu zuen oro biltzen zen plazan; baina, hobeto lan egiteko hiru erakunde sortu genituen: Amak seme-alabak bilatzeko, Amamak bilobak bilatzeko eta hirugarrena senideena oro har. Gizonekoei esan genien: ez zaitezte etorri, atxilotu eta desagerrarazteko arrisku handiago da-eta. Gu, zorotzat gintuzten; pentsatu zuten: “*utz ditzagun zoro horiek, ibil daitezzen hor; nekatuko dira-eta!* Etxera itzuliko dira laster, negar baten, emakumezkoak...”. Utzi gintuzten, eta oker zebiltzan! Bizitza osoa eman dugu ibilian... Aitak zain izaten genituen, adorea ematen zituzten, lagun leialak ziren/dira. ○

Mundua plaza; frankismoko auzian ere auzi-jartzaile

—Oraindino erronda egiten duzue eguenero, ibilbidea ez da amaitu...

—Monumentu bat bisitatu legez hala etortzen dira erronda ikustera; plaza ez da garrantzitsuena, historiko-sinbolikoa da, baina orain mundua da gure plaza; munduak jakin-entzun behar duelako. Ezin diogu presente, begi-bistan egote-ari utzi! Aldarrikatzen jarraitu behar dugu, ez hainbeste gobernuari, laguntzen dabilrelako, gizarteari baino; desagertuen gorpuzkinak aurkitzeko. Kontu horretaz erakunde bakoitzak bere ikuspuntua du, beraz elkar errespetatuz. Egunotan, egin

didaten beste galdera bat: zuen gerra zibileko kontuarena. Amamak auzi-jartzaileen artean gaude, Servini de Cubria epaileak abiatutako auzian: frankismoko gertakarien esplizituki arduradun direnen informazioa eta estradizioa errekeritu ditu. Herriak horretarako eskubidea du, herri espainiarrak zein euskaldunak, gorpuzkinak berreskuratzeko eta lapurtuta-ko ume haiek nortzuk dituzten jakiteko eskubidea. Inork ez du umeez hitz egin, eta 35.000 ume prestatu zituzten emateko! Urte asko joan dira, asko hilda daude, baten bat ez... eta jazotakoa ezagu-

tu gura dute. Gobernua herritarren ordezkari da, baina presidentea ez da herrialdearen jabe; herritarren bozka jaso zuen herritar horien beharrei erantzuteko, eta herri bezala egia aurkitzea behar badut eta eskatzen badut, ezin diote uko egin! Betebeharra da! Horrenbestez, ekin jaramon egin arte! Jarraitu eskatzen, soseguz, modu baketsuan, baina etsi barik! Eskaria zilegizkoa da-eta. Gu ere hala gabilta; gobernu alde dugu orain, baina plazako errondak zera adierazten du: oraindino ez da amaitu, oraindino falta da!



BIZKAIKO ZUBIA

Txori bati gure eskualdeko argazkiak eskatzarik bagenu, Ibai Egurrola San Andresek utzitako hauen antzekoak bidaliko zizkigukeen ziurrenik. Uribe Kostako airetiko ikuspegi batzuk eskaintzen dizkiguten irudiok “dron” deritzon aire-ontzi edo aireko ibilgailu ez-tripulatu baten bidez egin ditu algortarrak, Airetikan proiektuaren barruan. Egurrolak azaldu legez, “droiek” ohiko grabazioek baino aukera askoz gehiago eskaintzen dute, mugimendu gehiago egiteko aukera, eta arinago gainera. Argi eta garbi, beste ikuspegi eta ikusmolde bat ematen dute, zalantza barik... Une batez izan gaitzen txori!

Txori-begiz, Uribe Kosta airetik

Argazkiak: **Ibai Egurrola San Andres**
www.airetikan.com



ABRA



AREETA



SOPELA




ALGORTA

Gorlizko erietxea > 100 urteko historia

Itsasoaren iodoaz eta eguzkiaz baliatzen ziren tuberkulosiari aurre egiteko

Juan Manuel Goikoetxeak Gorlizko erietxearen 100 urteak biltzen dituen liburua aurkeztuko du abenduaren 10ean. Gaur eguneko ospitalea, haurren hezurretako tuberkulosiari aurre egiteko asmoz eraiki zuten hasieran. Tokiko iodoa eta eguzki-orduak baldintza ezinhobeak ziren horretarako.

XX. mende hasieran, Bizkaian ume ugari hiltzen zen tuberkulosiaren eraginez. Higiene faltak, pilaketak eta elikadura faltak infekzio hau hedatzen lagundu zuen sortu berriak ziren auzo langileetan. Enrique Areilza doktoreak (1860-1926) Trianoko Ospitaleko zuzendari izendatu zuten 1882an, eta hogeitaz aritu zen bertan. Tarte horretan, gizarte osasuntsu baten beharraz ohartu zen. Hala, beste mediku batzuen laguntzagaz, tartean Luis



Armarrian laranjak ikus daitezke


Larrinagarena (1878-1953), tuberkulosia zuten umeentzako ospitale baten beharra ikusi zuten. 1909 inguruan, Europan zehar itsas-erietxeen inguruan hitz egiten

hasi zen, eta Areilza eta Larrinaga dokto-reek proiektu bat aurkeztu zioten Bizkaiko Aldundiari. Begi onez ikusi zuten

Haurren hezurretako tuberkulosia sendatzeko eraiki zuten erietxea

proiektua, eta Mario Camiña, Aldundiko arkitektoa, izendatu zuten lan horretarako.

Bizkaiko kostaldean eraiki nahi zuten erietxea, eta Gorliz eta Lekeitio artean zailantzat egon ostean, Gorliz aukeratu zuten Bizkaian eguzki ordu gehien dituen udalerria delako, eta iodo-kontzentrazio handia zegoelako. Luis Larrinaga dokto-reak proiektuaren inguruko txosten bat aurkeztu zuen Erroman 1912ko “*Exposi-*



Estalkiak erabiltzen zituzten umeek eguzkia har zezaten

cione Internazionale d'Igiene Sociale”, eta lehenengo saria jaso zuen.

Erietxearen hasiera

Camiñas Vienako sezesionismoan oinarritu zen, eta 1919ko ekainaren 29an inauguratu zuten Gorlizko Itsas-Erietxe Helioterapikoa izenagaz, eta Luis Larrinaga

izendatu zuten bertoko zuzendari. Hura eraikitzeke, hormigoi armatua erabili zuten, oso gutxi erabilia garai horretan. Ezaugarri gisa, Juan Manuel Goikoetxea *El Sanatorio y Gorliz. 100 años* liburuaren egileak azaltzen duenez, erietxearen erdigu-
nean Bizkaiko Aldundiaren armarridago, “*Maniseseko (Valentzia) enpresa bati*

eskatu zioten baldosakaz egitea eskatu zioten, eta hara! Haritzari ezkurak jarri beharrean laranjak jarri zizkioten”.

Lehenengo urteetan, eguzkiak, elikadura egokiak eta itsasoaren aire garbiak umeak sentatzen lagundu zuen. Juan Manuel Goikoetxeak dioenez, Gorlizkoa inguruan dagoen mota honetako erietxe bakarra da, eta garai horietan Espainiako jende ugari etortzen zela dio, “*baita Nicaraguatik eta Marokotik*”.

Eraikina inauguratu eta 18 urtera,

Haurrentzako ospitalea izan zen 1980ko hamarkada amaiera arte

Espainiako Gerra Zibilean, erietxean zeuden ume guztiak ebakuatu eta Sota familiaren Goizeko Izarra itsasontzian Frantziara eramane zituzten.

1970ean erietxea Ebakuntza Ortopedikoko Institutu bihurtu zen, eta 1985ean Osakidetza eraikinaz jabetu zen. Hura eraberritu zuten eta egun Bizkaiko errehabilitazio-erreferente bilakatu da, “*baina baita barne medikuntzan eta palati-
tiboetan*”, Goikoetxearen esanetan. ○

Juan Manuel Goikoetxea, *Motores* > *El Sanatorio y Gorliz. 100 años*

“Gaurko ospitalea sanatorioa zenean, herriarekiko harremana erabatekoa zen, zuzena eta egunerokoa”

—Gorlizko sanatorioa 1911n eraikitzen hasi ziren, eta 1919ko ekainean inauguratu zuten. Zergatik hartzen duzu 2014a ehungarren urteurrentzat? —Nire ustez, erietxea eraiki zuten garaia hartu behar dugu kontuan. 1911tik 1919ra zortzi urte dira, eta garai horretan hainbat gertakari jazo ziren: grebak, errepublika, sindikatuen arteko liskarrak... Niretzat mendeurrena ez da inauguratu zutenetik hartu behar. Egun hori

beste bat baino ez da, agintariak agertzen direna. Niretzat zortzi urte horiek hartu behar dira mendeurrentzat. Hala, 1914-15 garai egokia dela uste dut. Ez dut egun zehatz batean pentsatu, garai batean baizik. —Liburu hau idazteko erietxeagaz lotura zuzena izan zuten hainbat pertsonagaz jarri zara harremanetan... —Bai, bertan lan egin zuten hainbat medikuren testigantzak jaso ditut. Baita

bertan aritu ziren hainbat moja ere. Hauetako bat Valladoliden bizi da egun, bestea Palentzian eta hirugarren bat Algortan. Horiengana heltzeko, bategaz kontaktatzea lortu nuen, eta hortik aurrera besteak harremanetan jartzea lortu nuen. Horregaz aparte, erietxean lan egin zuten hainbat gorliztarregaz ere hitz egin dut: bertoko joskintzan aritutakoak, mantentze-lanetan ibilitakoak eta bertan ospitaleratuta egon ziren

hainbat neska-mutilena. Testigantza ugari biltzen ditu liburu honek.

—Liburuan erietxearen eta Gorliz herriaren arteko harremana azaltzen duzu. Zelakoa zen lotura hori?

—Erietxea zenean erabatekoa zen, zuzena eta egunerokoa. Zergatik? Bertan lan egiten zuten mojak erizainak ziren. Medikuek txertoak jartzen, ebakuntza-gelan laguntzen eta beste hainbat gauza egiten erakusten zieten, eta herrira etortzen ziren askotan txertoak jartzera. Gogoratzen dut nire aitona drogeria bat zuela, eta bertara joaten zirela haria, jostorratzak eta beste hainbat gauza erostera, sanatorioan bertan gaixoen uniformeak josten zituztelako. Gainera, Aste Santuetan sanatorioko

umeak mojakaz etortzen ziren, euren uniformeak jantzita, Kasinoko terrazara prozesioak ikustera. Santiago jaietan ere herrira zetozen, eta gogoratzen dut ni buruhandiakaz erietxera jaisten nintzela umeak egoteko eta gozokiak ematera. Er-lazio oso garrantzitsua zen.

—Noiz aurkeztuko duzu liburu?

—Abenduaren 10ean aurkeztuko dut Bilboko Sociedad Bilbainan, 19:00etan. Juan Goiriak Bilboko Zientzia Medikuen Akademiako presidenteak gonbidatu ninduen bertara, eta Luis Larrinaga dokto-
aren bilobak lagunduko nau bertan. Ondoren Gorlizko Ospitalean aurkezpene-
egiteko baimena eskatu dut, baina eran-tzunaren zain nago oraindik.



—Non egongo da salgai?

—Guztira 500 liburu egongo dira salgai, 20 eurotan bakoitza. Horiak Gorlizko Etxebarria liburutegian eta Plentziako portuaren ondoko estankoa-
erosi ahal izango dira, abenduaren 10etik aurrera.○



BETIKO

IKASTOLA

Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

• 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.

• Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBIn.

• Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.

• Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.

• Ikastolen Elkartaren Leioako Ikastola bakarra



Ikastolen Elkartea

Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GARKO



GIZONENTZAKO MODA

Zabala 9

ALGORTA
Tf.94 460 70 84

[zinema]

Film laburrak lehiatzen

Igorreko **Luzetu barik** lehiaketara hilaren 12a baino lehen bidali behar dira lanak



Igorreko kultur etxean jasoko dituzte lanak

Luzetu barik film laburren lehiaketa antolatu du hirugarrenez Igorreko Udala. Antolatzaileen esanetan, “euskarazko film laburrak ikus-entzunezko adierazpen gisa sustatzea du helburu. Horrez gain, film labur berriak sortu daitezela sustatu nahi dugu bereziki 2014an. Edozeinek parte hartu ahal du eta gaia librea izango da baina euskarazko filmak onartuko dira soilik. Euskarazkotzat berbazko hizkera euskara dutenak hartuko dira soilik, eta ez dira onartuak izango euskarazko azpitu-luak izanik berbazko hizkuntza beste bat dutenak”.

Hala, lanak aurkezteko azkeneko eguna abenduaren 12a izango da, eta la-

nek bete beharko dituzten ezaugarriak eta baldintzak hauek: Filmeen gehiengo iraupena 15 minutukoa izango da, kredituak barne; eta gazteen eta umeen atalean minutu batetik (1 min.) gorako grabazioak aurkeztu ahal izango dira,

«Euskaraz izan behar dute; ez dira onartuko berbazko hizkuntza beste bat dutenak»

baita telefono mugikorrak grabatutakoak ere; lan guztiak (gazte eta haur atalekoak salbu) DVD formatuan aurkeztu beharko dira. Parte hartu asmo dutenek ordaindu beharko dituzte bidaltze-gastuak, eta lana hurrengo helbidera helarazi beharko dute: Luzetu barik Igorreko Film laburren lehiaketa, Igorreko Udala-Kultura arloa, Igorreko Kultur Etxea, Elexalde 8, Igorre, 48.140, Bizkaia.

Sariei dagokien, Igorreko Udalak ondorengoak banatuko ditu: Film laburrik onenarentzat 1.000 euro, Arratiako egileen lanik onenak 600 euro jasoko ditu, Gazteen (14-25 urte bitartekoak) ataleko film labur onenak 500 euro eta Umeen (7-14 urte bitartekoak) ataleko film laburrik onenak 200 euro; kontuan hartzekoa da sari denek legez dagokien zerga-atxikipena izango dutela. ○

Info+: www.igorre.net

Ahotseneak zabalduz doa

Jasotako eskari denei aukera eman asmoz, **karpa bi** izango ditu sortzaileen guneak



lazio emanaldi bat, Lain taldea

Antolatzaileek azaldu dutenez, “irailaren 16an, sortzaileen gunean izena emateko epea zabaldu eta ia berehala, zuzeneko emanaldien eta liburu aurkezpenen eskaintza bete zen; 40 zuzeneko eta beste 40 aurkezpen egiteko izena eman zuten parte hartu asmo zutenek”. Egoerari aterabidea eman guran, “Ahotseneatik kanpo gelditu diren lagunak hartzeko asmotan, espazioaren birformulazioan ibili gara (finantziarioa, tokia...)”, adierazi du Lutxo Egia koordinatzaileak. Hala, karpa bi ipintzea erabaki dute, batean zuzenekoak eskainiko dira eta oholza bi izango ditu, aurrez

aurre; bestean, berbaldiak eta errezitaldiak emango dituzte. Aurreratu dutenez, gutxi gorabehera 55 kontzertu eta 36 solasaldi hartuko ditu sortzaileen guneak, behin-behinean. Egunez eguneko emanaldien, protagonisten zein ordutegien berri gunearen (helbidea duzue azpian) webgunean duzue.

Aipatu beharrik ez bada ere, Ahotsenea Durango Azoka egiten den inguruan eta egunetan izango da: Landakon, hilaren 5etik 8ra. ○

Info+: www.ahotsenea.net
www.durangokoazoka.com

hatortxurock > abenduaren 27an

Bukatu dira arantaz beteriko egunak du goiburua hilaren 27an, Atarrabian, egingo den euskal preso eta iheslarien aldeko aurtengo musika-jaialdiak. Dagoeneko sarrerak salgai eta egitaraua prest: Esne Beltza, Vendetta, Kashbad, Izerdi Gorria, Hesian, Aspencat, Arkada Social, Talco, Kop, Estricalla eta Narco taldeek jardungo dute oholza gainean. Musika eta aldarrikapena beste behin, eta 17, biderrez, buztartuko dituen jaialdiko sarrerak 15€ balio du (+kudeaketa gastuak 1€) eta Internetez eros daiteke. Karpa pasa den urteko leku berean egongo da: Atarrabia eta Burlata artean dagoen Entrecementarios eremuan, eta arrastiko 16:00etan zabaldu ditu “ateak”.

Info+: www.hatortxurock.org

kontzertua > Solis String Quartet

Luigi De Maio (biolinak), Vincenzo Di Donna (biolinak), Gerardo Morrone (biola) eta Antonio Di Francia (txeloa) musikariek osatzen duten Solis String Quartet taldeak zuzeneko eskainiko du Kultur Leioako Auditoriumean, hilaren 19an, 21:00etan (15 euro). 20 urtetik gora daroa oholza gainean Napolesen sortutako taldea, “lau musikagile eta moldatzaileen topaketa batean. Hari-laukote honen proposamen artistikoa orijinaltasun jakintsu batek markatzen du, jazz, world musika, popa eta musika garaikidea nahastuz. Trebetasun honek, San Pietro a Majella kontserbatorioko garaian ikasitako teknikarekin batera, nazioarteko musikari ospetsuekin lankidetzat izatera eraman ditu”.

diskoak

Ongi etorri
Anne Etchegoyen
Elkar



Bidarteko (Lapurdi) kantari gaztea 2013an Frantziako Estatuan argitaratutako diskoarekin, gizonezko Aizkoa Abesbatzaren alboan duela. Disko-bilduma hau Hegoaldeko publikoari eskainia dago bereziki; iazko diskoko zenbait kantuk, aurreko argitaratu berri duen bigarren diskoko beste zenbaitek eta kantu berri bik osatzen dute.

Bi
Saioa
Usaina Records



Kamila Zubeldiak (Umama taldea) eta Marieder Iriartek (The Sparteens taldea) osatzen duten Saioa taldeak folk estiloko diskoa kaleratu dute. Hamar kantuz osatzen da lana, “Iparraldeko folkaren paisaia klasikoari ukitu desberdina ekartzen diote”. Nemesio Etxaniz, Joan Casenave, Patxi Perurena edo Joseba Sarrionandiaren berbak erabili dituzte”.

Badoa, badirau
Ain_1
Autoekoizpena



Iraitz Agirre, Maialen Madarriaga, Itsaso Nabaridas, eta Amaia Pavonek osatzen duten Ain_1 taldea 2007an sortu zen Arrasaten. Musika kaxa (MusikHerria) lehen disko luzearen ostean, bigarren lana plazaratu dute. Orduan legez, orain ere, Ander Barriosogaz grabatu dute Elek-trika Grabaketak estudioan. Hainbat kantak folk poparen bidea jorratzen dute.

REBEL TATTOO



Basagoiti Etorbidea 73, 48991 Algorta
Tf. 946 12 07 52
facebook/RebelTattooAlgorta

Getxoko Andra Mari Gasolindegia

Txartel hau aurkezten baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES eta TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[literatura]

Atxaga Sopelan

Nevadako Egunak liburuaz jardungo du **Asteasuko idazle** ezagunak


Denak ezagunak izan badira ere, batzuen izenak oihartzun handiagoa duenez, urte amaierako emanaldia Asteasuko idazle ezagunak eskainiko du Sopelan. *Nevadako egunak* (Pamiela, 2013) lana izango dute berbagai Atxagak eta solasaldira hurreratzen direnek. Izan ere, Sopelan literaturaz solasean ekimenaren hirugarren emanaldia izango da Bernardo Atxaga hizlari izango duena, urte honi dagokionez behintzat, azken ekitaldia.

Aurrekoetan legez, Kurtzio kultur etxean arrastiko 19:00etan izango da hitzordua, honako honetan, hilaren 18an, eguena.

Nevadako egunak 464 orrialdetan mamitzen eta garatzen da; ganoraz bazabiltzate, zita orduko, irakurtzeko astia

«Abenduaren 18an, arrastiko 19:00etan, Kurtzion»

baduzue oraindino. Iaz argitaratu zen lana, eta ofizialki hala laburbildu dute: *“kronika da hasieran, eta bukaeran nobela. Bere pieza guztiak bereziak dira, baina motiboak eta pertsonaiak, beti berberak. Obabakoak bezain aldakorra da, eta Soinujolearen semea bezain trinkoa. Ez dago orrialde berdinek, ezta orrialde solterik ere.*



Bernardo Atxaga (Asteasu, Gipuzkoa, 1951)

Liburuaren atmosfera nagusia biografiarena da. Bere orrialdeetan azalduz doazen pieza guztiek giza esperientzia dute abiapuntu. Egileak bere berri ematen du haietan, zer bizi izan zuen, zer pentsatu eta imajinatu zuen Estatu Batuetako Nevadan pasatutako denboran, 2007ko abuztutik 2008ko ekainera; baina beste pertsonaia batzuk ere hartzen ditu aintzat, hurbilekoak eta arrotzak, lehengoak eta oraingoak. Lekuek ere badute garrantzia, eta batez ere desertuak”.

Euskal idazle ezagunenetakoa bategaz elkartzeko eta eztabaidatzeko egundoko aukera hau galduko ez duzelakoan... Ordura arte! ○

liburuak



Hilan logika ezkutua
Javier Muguruza
Erein

Irungo musikaria idazle ere bada aspaldi. Lan honetan, *“bame-beldurrak, krisialdi ekonomikoa, matxismoa, giza kondizioa, harreman sozialak, sentsualitatea, itxaropenak, bikote-harremanak, bameko indar ezezagunak, kulturaren egoera, bakardadea, duintasuna, zahartzaroa e.a.”* ditu hari.



Eremuen Birkalifikatzea
Luis Garde
Pamiela

Aurtengo Xabier Lete II. Poesia Saria irabazi zuen Luis Garderen lanak, eta Eremuen Birkalifikatzean gauzatu du. Adituen esanetan, *“poemetan amasa handiko ahots poetikoa mintzo da, oreka bereziz elkartzen dituen gizarte kritika eta metapoetika...”*

[kirola]

Eneko Nieto Irureta > karateka

“Egunen batean munduko txapelketara ailegatzeko aukera izatea gustatuko litzaidake”



Ingeniaritza mekaniko ikasketak eta karatea buztartzen ditu

Azaroaren 1ean, Eneko Nieto sope-loztarrak Euskadiko Karate-Txapelketa irabazi zuen Gasteizen. Zazpi urte gaz hasi zen karatearen munduan, eta 19 urte gaz Euskadiko titulua irabazi du, denbora luzez egindako lanaren ondorioz.

—Euskadiko karate-txapelduna zara, zelan hartu duzu titulua?

—Oso pozik, urteetan egindako lan handiaren ordainetan jasotako saria izan da niretzat. Baina baita umiltasunez ere, beste lehiaketa batean balitekeelako honelako emaitzarik ez lortzea.

—Espero zenuen emaitza hori?

—Egia esan oso ondo prestatuta nongoen lehiaketa honetarako. Bi hilabete eta erdi eman ditut lanean domina bat eskuratzeko helburuagaz; hala ere, apur bat harrituta gelditu nintzen nire aurkariak denbora gehiago daramatelako lehiaketetan eta esperientzia handiagoa dutelako horietan.

—Zelakoak dira zure entrenamenduak?

—Nire kasuan, astero lau edo bost egun entrenatzen ditut, eta entrenamenduak or-

du eta erdikoak izaten dira. Nire gimnasioan ez dugu lehenengo helburutzat lehiaketa hartzen; beste toki askotan bakarrik oinarritzen dira horretan, baina gure helburua ikastea eta karatearen esentzia ulertzea da. Hala ere, nire kide batzuk eta ni bargaude lehiaketen munduan sartuta.

—Zerk bultzatu zintuen karatearen munduan murgiltzera?

«Gure helburua ikastea eta karatearen esentzia ulertzea da»

—Gezurra badirudi ere, txikitan telebistan ikusten nituen marrazki bizidun batzuek, kar-kar. Behin amari esan nion karatea egiten hasi nahi nuela, eta berak ikastola-ko eskolaz kanpoko karatean apuntatu ninduen.

—Aurrera begira zer duzu buruan?

—Ikasketak batez ere; Ingeniaritza mekanikoko bigarren ikasturtean nabil. Karatearen harira, espero dut egunen batean munduko txapelketara ailegatzeko aukera izatea. ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa Kirol moda



350 m²
KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

MySurfWall

Itsas kirol zale hori,
behar duzun informazio guztia
atari honetan:

www.mysurfwall.com
Sartu!

Aritza Bergara

Atal honetan agertzen diren testuak eta ilustrazioak “Euskal Herriko Mitologia. Jentilen aztarnen atzetik” proiektutik ateratakoak dira. Adarmendi eta Orritz euskal kultur elkarteek bultzatutakoa. Materialak ikusteko edo informazio gehiago lortzeko www.euskalherrikomitologia.com webgunera jo.

Gauargiak. Ilustrazioa: Daniel Castello

Itsaslaminen edo uhandreen olerkiak

Zierbenako kai gainetan
kresalezko besarkada senti nuen,
arrainanderek naturari egiten diogun kaltea ikusirik,
ospa egin zuenean.

Handik aurrera
gero eta arrain gutxiago
sartzen dira kaian.
Arrantzontziak usteltzen ari dira
marinel zaharren begiradapean.

Nikolas Uriartek arrazoia zeukan:
“Gizakiok bizkarra eman diogu Itsasoari”.

Agian horregatik joan zen Txileraino,
bizitza berri bat topatzeko asmoz,
natura basatia eta kutsadurarik gabekoarekin
bat egiteko.

Betitxe Saitua Estebanez > euskara eta kultura zinegotzia



“Euskaratik abiatuta izan behar dugu sortzaile”

Betitxe Saituak (Sopela, 1986)
2011 urteaz geroztik dihardu Sopelako euskara eta kultura zinegotzi lanetan. Arte Ederretan lizentziaduna, hamar urte baino gehiago daroatza herri-mugimenduan lehen, eta orain udaletxean, *“herria hobetzeko eta sinesten dordanagatik borrokatzeko lanean; lehen eta orain, musutruk”*.

—Zeintzuk dira euskararen ahuleziak, indarguneak eta erronkak Sopelan?
—Sopela berriaren bidea hasita dugu jada eta bertan euskara lehen mailako osagaia izaten ari da. Sopelantik Sopelara heldu gara behingoz politikagintza ikuspuntu euskaldunetik egiteko, eta batez ere, erronka handiak ditugu euskararen erabilerara handitzeko, kalean euskara gehiago entzuteko eta egunerokotasunaren parte naturala izateko edonon. Baina herritarrek dira euskararen indargunea, euskaldun asko dago Sopelan, zaharrak zein gazteak. Esate baterako, lehen hezkuntzako eskolan A eredu desagertua daukagu jada eskari faltagatik, beraz, herria gero eta euskaldunagoa dela eta izan nahi duela argi ondoriozta dezakegu. Eta bide horretan gabiltza, gure indargunea diren sopoloztarrei baliabide gehiago eskaintzen.

—Hori lortzeko egitasmorik baduzue?
—Hainbat egitasmo ditugu martxan. Udaleko zerbitzu guztien euskalduntze lana oso garrantzitsua da, eta horretarako, Udaleko Erabilera Plana onartu genuen bertan finkatzen diren helburuak pixkanaka-pixkanaka betetzen joateko. Bestalde, euskarak badu protagonismoa Udalean jorratzen ditugun beste gaietan ere, kultura, kirola, turismoa, berdintasuna e.a. Hasieran aipatu dudan moduan, euskaratik abiatuta izan behar dugu sortzaile.



Betitxe Saitua, Sopelako zinegotzia

—Eta erabilerari dagokionez, baduzue ekimenik edo proiekturik martxan?
—Erabilera areagotzeko ekimen asko ditugu, eta azken aldian, gazteen arteko erabilera indartzea izan da erronka, hau funtsezko pausoa baita etorkizuneko erabilera bermatzeko. Gazteak euskaldunak dira, baina aisian edo kirolean ez dute euskara era normalizatuan erabiltzen. Hala,

“Hainbeste gazte mugitzen dituen futbolaren mundua euskalduntzen gabiltza”

hainbeste gazte mugitzen dituen futbolaren mundua euskalduntzeko programa martxan jarri dugu, orokorrean *Kirolean Euskaraz* kanpainaren barruan. Ezin dut aipatu barik utzi, euskarak herrian duen altxor bat: Aitxu Euskara-taldea. Horrez gain, berbalagun-taldeak, salerosketan euskara erabiltzeko ekimenak eta beste hainbat proiektu ere baditugu martxan. ○

Sopela

Biztanle kopurua
EUSTATEk bi urtetik gorako biztanleak hartzen ditu:
2006an, 12.031 biztanle
2011n, 12.191 biztanle

Euskaldunak
4.510 euskaldun, %37,5 (2006)
4.928 euskaldun, %40,4 (2011)

Ia-euskaldunak
3.405 ia-euskaldun, %28,3 (2006)
3.864 ia-euskaldun, %31,7 (2011)

Erabilera datuak
%13,9 (2006) eta %9,4 (2011)

Harremanetarako:
946 579 279
euskara4@uribekosta.org

[badaukazu non aukeratu]

[pintxo**tan**]

Taberna eta jatetxe asko ditugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozatzen has zaitezzen.

Especialistas en
desayunos
abrimos desde las
07:00h.
y 08:00h. los fines de
semana y festivos

C/Iturgibi, 13
48620 Plentzia
Telf.: 94.677.31.28
www.cafebarzuazu.com

Café-Bar
zu
Plentzia

ABIAN
HERRIKO TABERNA

PINTXOAK
OSTIRAL ETA LARUNBATETAN:
RAZIOAK- BOKATAK- PLATER KONBINATUAK

AFARIAK ETA URTEBETETZEAK
ENKARGUZ

Tf. 94 656 68 51 Bidebarri 2, ALGORTA

berezi

Hanburgesak Ogitartekoak
Sanwichak Plater konbinatuak

SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO
ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)

txakoli
mota
gane
txakolina

Leioa-Unbe errepidea 34 (Akarlanta Parkea) Gohierri-Erandio
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com

GURE
ETXEA
taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA

Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

fugu

Bat batean eginda japoniar eta tradizionalen
www.fugulasarenas.com

Evaristo Churrua Kaia 2 (lonja) - Bizkaia Zubiko enparantza - Areeta - GETXO
944 808 796
Banaketa-eremua: Getxo eta Leioa

TABERNA
Unai
JATETXEA

ALGORTAKO ETORBIDEA. 96
48991 GETXO (BIZKAI)A
TELF. 944661661
TABERNAUNAI@HOTMAIL.COM

TABERNA
Ekin
JATETXEA

CALLE BOLUE Nº4 TEL: 946080462

ALURREN
HERRIKO TABERNA

GOSARIAK
PINTXOAK
KOPAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRA
SOPELA
Ripa Kalea 1 (Udaletxe atzean)

portu
zaharra
bar

Portu Zaharra kalea 35
48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)
Tf. 94 460 20 33
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com

BODEGUILLA
BUTRON

Bidebitarte. 4 y 5 - Algorta (Getxo)
94 430 01 74
www.bodeguillabutron.com

KAI EDER
JATETXEA

Menu ederra itsasoari begira

Tf. 94 677 41 33
Txurrua kalea zenbakirik gabe - PLENTZIA
www.restaurantekaieder.com

Zure taberna edo jatetxea
hemen agertzea
gura baduzu
ipini gugaz harremanetan:

94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

Ravioli faltsua

Txerri-hankaz beteriko kalabazina



Pintxoa Algortako Ekin tabernan zerbitzatzen dute

Udagoienez bete-betea sartuta gauden, nahiz eta batzuetan, egun batetik bestera udara salto egiten dugula iruditu. Ezin aurreikusi zer-nolako eguraldia egingo duen bihar edo etzi, beraz, herrian bertan gelditzeagaz konformatu beharra dugu askotan. Hala, egun aldakor horietan herrian paseotxo lasaia ematea baino plan hobirik ez dago, eta ibilaldia-ri amaiera emateko, taberna batean pintxoren bat edo beste dastatzea baino hobirik ba al dago?

Bide horretan Algortako Ekin tabernagaz egin dugu topo, Bolue eta Euskal Herria kaleen arteko bidegurutzearen ondoan. Bertara sartu eta hainbat pintxo aurkitu ditugu barra gainean. Horietatik bakarra eta zein aukeratzea zaila izan da,

baina azkenean, kalabazin bete hartu dugu.

Halako pintxo egiteko ez dugu denbora handirik behar. Lehenik eta behin, kalabazina hartu eta lamina meheetan moztu behar dugu. Ondoren, horiek zuritu biguntzeko eta alde batean utzi. Hori eginda dugula, txerri-hankak sukaldatu eta kalabazin lamina baten gainean izpitu. Jarraian, kalabazina itxi, arrautza-irinetan pasatu eta frijitu; hala, betegarria leundu eta urtsu geldituko zaigu. Azkenik, mokadua gainetik etxean eginiko saltsa bizkaitarra botako diogu. Kito! Bukatu dugu oraingo pintxo ederra! o

Osaiaik: kalabazina,
txerri-hankak, olio, irina, arrautza
eta saltsa bizkaitarra.

uk **zure**
publizitatea
hemen !

94 491 13 37 - publiuk@aldizkaria.biz

Croissanterie
Brioche

MONTE JAIA 1
48991 GETXO (BIZKAI)A
CROISSANTERIE-GETXO.BLOGSPOT.COM

91 460 86 48

Taberna Berri

Sarrikobaso 4 - ALGORTA
Tf. 94 430 64 93

JUAN-MARI

Harategia eta txarkuteria

ARTESANA

LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25
AREETA

KONTXI
ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztaietan!!

Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93

TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15



prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO



Torrene 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com

GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"
Prensa - Fruitu lehorak - Aldizkariak - Lixarreriak

Orduña Mendatea 1
Tf. 94 430 22 13
GETXO

Uuribefm 107.8
fm
Gorliz Irratia



**zure
publizitatea
hemen !**

94 491 13 37 - publiuk@aldizkaria.biz

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Liburu eta disko bana, hori da Durangoko Azokan erosi ohi duzuna. Aurtan ohiturari eutsiko diozu, zer edo zer gehiago erosiko duzu, edo ezer ere ez?

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Aste honetan beste aterki bi apurtuko dizkizu haizeak eta, daborduko, nekatzen hasita zaude. Hobe duzu jaka bat lortzea, arrantzaleek erabiltzen dituzten horietakoa onena!

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)
Liburu potolo bat irakurtzen amaitu barri duzu eta leher eginda zaude, izan ere, sekula ez zara izan oso zalea. Beste bategaz hasi baino lehen hobe zenuke komiki bategaz saiatzea.

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)
Olentzeroren Batzordean gogotsu zabiltezan, txokolate-janaren arduradun izendatuko zaituzte. Horra hor buruhaustea: zenbat bizkotxo zati ume bakoitzeko?

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Perretxiko bila urtengo zara aste akabuan, baina gixi topatuko dituzu, izan ere, herriko erretiratuek aste barruan jaso dituzte danak. Lana utzi behar eurar baino lehen iristeko...

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Aurtan Mari Domingiren laguntzailearena egin behar duzu Gabonetako kalejira: gozokiak banatu, gutunak jaso, e.a. Adi umeakaz, nahikoa bihurri dira-eta!

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)
Badakit oso gustuko duzula gaztetan aititek oparitutako jertsea, baina bolaz josita dago, zahararren zaharrez. Armairuan badaukazu beste batzuk barriagoak; horiek jantzi, faborez!

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Erxe aurreko parkeko zuhaitzek hostoak galdu dituzte, eta orain, parez pare dagoen eraikina ikus daiteke, bizilagunek etxean zer egiten duten... Zein ondo, ezta? Kuxkuxero horrek...

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)
Beti gustuko izan duzu putzuetan salto egitea, baina orain ezin duzu, goitik behera loituko zinateke-eta. Jantzi gurasoek orturako erabiltzen dituzten katiuskak eta egin salto lasai asko!

META



(Irailak 17 urriak 16)
Errugbi partida ikusteko sarrera batzuk egingo dizkizute, baina lagunek ez dute joan gura. Lasai egon, hartu bokata, pastela eta zahatoa, eta bakarrik joan zelaira: baietz lagun piloak topatu!

HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)
Bizitza aldatzeko moduko proposamena egingo dizute eta ez duzu jakingo zer egin. Ondo pentsatu erabakia hartu aurretik, baina jakin badakizu horrelako aukerak gixtitan sortzen direla.

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)
Elurretara joango zara, baina bidean kristoren ekaitza izango da eta errepidean lotuko zara, autoak ezin aurrera egin. Lasai, laster topatuko duzu hotelxo bat, zahar-zaharra eta basoan erdi galduta...

Zelan bainabil jantzirik,
halan hotza daukat nik.



Laura Siles, 2014

Egutegi bat
zure argazkiekin '15

cianoplan
GLOBAL PRINTERS



9'90 €
~TIK
AUERRERA



4'30 €
~TIK
AUERRERA



2'76 €
~TIK
AUERRERA



25'00 €
100 ALE



6'57 €
~TIK
AUERRERA




1'75 €
~TIK
AUERRERA

Villa de Plentzia, 6 (Getxo) • 94 464 90 87 • areeta@cianoplan.es • www.cianoplan.es

denborapasa

HITZ GURUTZATUAK



LUMA aldizkariaren eskutik

Ezker-eskuma

1. Bizimoduak, bizitzeko erak. 2. Izuarazi, beldurraz. 3. Daukat. Sabelak. 4. Gaixotze, gaizkitze. Zoro. 5. Kontsonante bikoitza. Gipuzkoako hainbat alde-tan hala esaten diote igelari. Kontsonantea. 6. Pisu unitate. Aiarako kontzejua eta auzoa. 7. Eremutarra, leku bakartietan otoitz eta penitentziara emanda bizi zen fraidea. 8. Kontsonantea. Ez du entzuten, gor. Ehun zati, gehien-gehienetan lauki itxurako. 9. Zenbait animaliak kopeta aldean dituzten hezu-rezko luzakinak. Galderetan erabili ohi dugun partikula. 10. karga elektrikoa duen atomo. Bizkaiko herria, Arratian.

Goitik behera

1. Biderkatzen diren gaitako bakoitza. 2. Euskal Herriko bandera, Sabino Aranak as-matua. Musika nota, eskalan aurrenekoa. 3. Puska. Bare, trankil. 4. Iridioa. Aleak kendu zaizkion artaburu, arto kozkor. 5. Lakarra, gogorra. Hosto. 6. Kirol marka. Zilarra. 7. ... izan, gauza izan. Uko, ukapen, ukazio. 8. Lapurdi Garaiko herria, piperrak famatua. Hitzen hasieran horren gogo onez hartzen ez dugun kontsonante dardarkaria. 9. Gipuzkoako herri bateko. Akain mota txiki eta bizkarroi. 10. Aldrebasa, Ipar Euskal Herrian. Bilo.

Soluzioa

B	I	Z	I	L	E	G	E	A	K
I	K	A	R	A	R	A	Z	I	A
D	U	T	T	R	I	P	A	K	
E	R	I	T	Z	E		E	R	O
R	R		X	A	K	E	L	L	
K	I	L	O		O	Z	E	K	A
A	N	A	K	O	R	E	T	A	
G	S	O	R		Z	A	P	I	
A	D	A	R	R	A	K		A	L
I	O	I		I	G	O	R	R	E

ez horren gaztetxoak < bilatu eta irabazi > gaztetxoak

Nor da berbetan ataleko elkarrizketatua?

> Aurrekoaren erantzuna: Armintzekalde hondartza, Armintza

> Irabazlea: **Arantza Sedano Ugarte**

*deitu telefonoz: 944 911 337

Non dago zenbaki honetako Mundukatua?

- **Bremenen**
- **Berlinen**
- **Dresdenen**

> Aurrekoaren erantzuna: Abenduaren 3an

> Irabazlea: **Xabier Uriarte Landa**

*deitu telefonoz: 944 911 337

SARIA
Zaindu
Osteopatia-Fisioterapia
Doctor Landa 4, SOPELA.
Tel: 94 602 67 79


SARIA
Kantxa Kirol Moda
www.kantxa.eu
Torrene, 4 ALGORTA.
Tel: 94 491 1882


Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 944 911 337 telefonora deitu

BITORIA MARKAIDAK UTZITAKO ARGAZKIA



SOPELOZTARRAK KAXARRANKA DANTZAN, 1985

San Pedro egunez, Alkartasuna dantza-taldeko gazteak dituzue, Sopelako plazan (lehengo udaletxe zaharra atzean). Beste dantza mota batzuen artean, Lekeition egun berean San Pedroren omenez ohiturazkoa den Kaxarranka dantzatu zuten. Hala, arka gainean dantzatu zituen Gaizka Oleak zortzikoa, fandangoa eta arin-arina. o


Arka gainean: Gaizka Olea.

Eusten: Joseba Legarra (GB), Jon Legarra, Andoni Barturen, Gorka Olea eta Ander Legarra.

ROBERTO TANANTA AWANARI > aktorea

“Lagunak ispilu handi bat izan daitezke norbera ikusteko”

Testua: Iker Rincon Argazkia: Itziar Ituño



Defini egizu zeure burua berba bitan.
Ia-tsakun (ausarta tupi guaranieraz).

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?
Quentin Tarantinoren batean. Nire ustez, pelikula baten musika oso paper garrantzitsua da, eta Tarantinoren filmetako musika gustatzen zait.

Zure haurtzaroko oroitzapen bat?
Oihana iluntzean, irratiko SW frekuentzian moskutar irratsaio bat entzuten genuen, inoiz ez dut ahaztuko.

Badaukazu ohitura txarren bat?
Bai, azken orduan egiten ditut gauzak.

Eta aitor dezakezun bizio bat?
Pintxopotea, beti dago aitzakiaren bat lagunakaz elkartzeko.

Zein da zure ametsetako bat?
Nire herriaren (Kukama Herria) aitorpena eta herri libre bat izatea.

Zer edo nor eroango zenuke irla isolatu batera?
Bikote bat. Zein inportantea den norbera ikustea, eta lagunak ispilu handi bat izan ahal dira.

Gorroto duzun topikoa?
“*Apolitikoa naiz*” ezin dut aguantatu. Pertsona bakoitzak iritzi bat du, eta iritzi hori zerbaiten alde edo kontra dago. Ezin duzu guztien aurrean ondo gelditu. Sokratesek definitu zuen: “*politika jendartearen helbururik onena da*”. Beraz, ezin zara apolitikoa izan.

Zein barri gura zenuke irakurri biharko egunkarian?
Euskal Herriaren independentzia lortu dela.

Azken aldian egin duzun erokeriarik handiena?
Euskal Herrira etortzea. Ni anarkista baten antzera bizi nintzen, eta bat-batean Visa eskatu behar izan nuen, bidaiak, kontrolak... eta noski, pertsona susmagarri bihurtu nintzen, etorkina.

LABURREAN—Roberto Tananta Peruko oihanean jaio zen 1977ko maiatzaren 18an, San Pedro de Tipisca izeneko herri txiki batean. Hala ere, egun Basaurin bizi da, “*KRlen, Kaleroko Republika Independiente*an”. Tanantak elektro-nika, musika, ingelesa, frantsesa, euskara, antzerkia, ikus-entzunezkoak eta informatika ikasi du, hori dela-eta, datozen mendei aurre egiteko prest dagoela aitortu du barre artean. Euskal Herrira etorri zenetik, hainbat proiektutan parte hartu du, hala nola, *Arkadia* fikzio-filman, *Sukalde kontuak* komedian, *Jainkoen urrea* film laburrean, *Dragoi ehiztaria* filman, *Heltzean* EITB1eko saioan eta hainbat bideoklipetan. Egun, euskara ikaste-prozesuaren inguruko hitzaldiak ematen dabil, “*norbaiti erabilgarri izango zaiolakoan*”; baita Kukamaren herria eta kultura bultzatzen ere, “*nirea delako*”, eta horretarako, ikuskizun bat prestatu du: *Kukama Kosmobisioa*, euskaraz.

EUSKARA JENDEA

GURE HISTORIAREN HIZKUNTZA GURE HIZKUNTZAREN HISTORIA

ATALA	DATA	TOKIA	LABURPENA
Aniztasunaren Bidean	Azaroaren 20an	19:30 Villamonteko Kultur Etxean	Atal honetan, Euskarak Erdi Aroan bizi izan zuen errealitatea erakusten digu: erromatarren inperioa desagertu ondoren, germaniarrak eta arabiarrek etorri ziren; done Jakue bideak Europan bizi zena zekarren; latinaren indarra leundu egin zen; eta Euskal Herria hizkuntza eta kultura aniztasunaren bilgune bihurtu zen. Testuinguru honetan, kristautzeak Euskararen izugarritzko eragina izan zuen.
Mugetan Gaindi	Azaroaren 27an	19:30 Villamonteko Kultur Etxean	“Euskara Jendea” saileko laugarren dokumental honek inperio modernoaren sorreran kokatzen du Euskara; Aro Modernoan Frantzia eta Espainiako mugak finkatu ziren eta horrek euskararen komunitatea bitan banatu zuen, ondorioz, Euskara gutxiagotze-prozesuan sartu zen. Garai berean, kontinente arteko bidaia luzeak hasi ziren, lurralde berriak eta negozio iturri berriak zabaldu zituzten, adibidez balea-arrantzaleena, eta horien guztien bidez Euskara Ameriketara ailegatu zen.
Gerren Arteko Pizkundean	Abenduaren 4an	19:30 Villamonteko Kultur Etxean	XIX. mendeko errealitate politiko nahasiak eragin gogorra izan zuen Euskararengan; Iraultza Frantsesak eta Foruak galtzeak, zentralizazio politikoa handitzea eragin zuten eta hizkuntzaren beste atzerakada bat ekarri zuten. Hala ere, mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran euskarak beste berpizkunde txiki bat bizi izan zuen kultur mugimendu erromantikoari esker.



jaietan
euskaraz

kiroletan
euskaraz

gure!
artean!
euskaraz



Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz.**



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia